



BARREN

TOKIKOM

Fibrosi kistikoa dutenen alde busti dira



ESKERRIK ASKO, DENOI!

Portatu zarete oraingoan ere!

Zuei esker 1.500 opari baino gehiago banatuko ditugu Elgoibarko Izarraren aldeko tonbolan.
Zuei esker, abenduaren 24a aurten ere berezia izango da:
Mila esker, Elgoibar, eta Kalegoen plazan bilduko gara!

2. Estankoa / 40-15 Tenis Elkarte / AEK euskaltegia / Agurtzane ileapaindegia / Ainara Arnaiz / Aldaz hortz klinika / Aire estetika / Bacalaos Alkorta / Altzola Berazeta baserria / Amagoia gozo denda / Amaia Mendikute fruta denda / Ametsa kafetegia / Ana Mosacula / Ander Errasti / Andres Alberdi / Angel Ugarteburu / Anua errektifikatuak / Aranburu bitxi denda / Arauri / Aerotxuri S.L. / Arilan mekanizatu zentrua / Arkupe / Armueta harategia / Arriere De La Maison De Izaro / Asiatorr / Aterpe / Azkue argazkiak / Azpi's Bags / Barrenetxea Etxeberria botika / Beitia Arriola fisioterapia / Beitia Arriola hortz klinika / Belaustegi jatetxea / Beristain Logistika Banaketa / Beristain Mekanizatuak / Bitxibitxi / Bitxibizibitxi / BM Supermerkatuak / Burgoa Somoa arrandegia / Casa Astigarraga kirolak / C.D. Elgoibar / Caixabank / Caramel Goxokiak / Castrillejo Estankoa / Cometel / Cristina Garcia estetika eta Terapia Naturalak / Danele Sarrugarte / DanobatGroup / Dantzan.eus / Darama bitxiak / Denetik bazar txinatarrak / Doña Mercedes / Ecnarro lantzeria / Ecolandry / Egondo / Egur arte tailerra / Ehun Kilo / EITB / Eizagirre okindegia / Elena ileapaindegia / El Gautxo / Elgoibar1936 / Elgoibar Ikastola / Elgoibarko Gazte Asanblada / Elgoibarko Udala / Emilia Nogales / Eroski Maala / Errigora / Esther Ibarguren / Etxean Gozo / Etxekit / Etxepe / Etxe-Tar / Euskaltzaleon Topagunea / Evoka Shoes / Exclusivas Pelegrin / Fadedek ileapaindegia / Farmalau / Ferpi Modak / Fotero / G&M jantzidenda / Gabi jatetxea / Gaindu / Garate jantzi denda / Garitaonandia botika / Gemma Monreal / Go Bike / Gorostiza liburu denda / Gotzon Garate Udal Liburutegia / Grupo Unceta / Gure Esku Dago Mendaro / Hair's ileapaindegia / Haritz Euskal Dantzari Taldea / Hik Hasi / Hurbil informatika-Mr.Micro / Ibai-Ondo erretegia / Ibarrenea / Idama / Ikus optika / Imanol Agirretxe / IMH Museoa / Industrias Metala / Iñigo Azpiroz / Ipintza margoak / Iratxe Terapiak / Iria / Iriondo altzariak / Iriondo kirolak / Iriondo taberna / Isleder / Iturri / Jai Alai / Jairo argazki estudioa / Jakoba Errekondo / Jasone Osoro / Javier Elorza / Jesus Mari Makazaga / Jon Gurrutxaga / Jose Alberto Eguren / Jose Antonio ileapaindegia / Juli Arregi / Justo Arriola / Julen Zabaleta / Kala loradenda / Kalamua Guraso Elkarte / Karakate jatetxea / Karkizano / Kemen belardenda / Kideok S.L. / Kilimon Trail / King-Kong / Kiroldegiko taberna / Klitz / Koldo Lizarralde / Kopilan / Kutxabank / Laboral Kutxa / Lagun Taldea Txirindulari Elkarte / Lagunak koltxo denda / Lanbroa / Larre / Lerun jatetxea / Lurdes ileapaindegia / Magi Bitxiak / Magus / Maite Maiora / Maite Rementeria / Manahmana / Mapfre / Marian fruta denda / Markel Bergara / Mausitxa / Mecanizados Mancisidor / Mekanosa / Membrillera eskulanak / Meraki ileapaindegia / Merino konponketak / MG burdindegia / Mikel Aingeru Goenaga / Mintxeta Atletismo Taldea / Milar Bire / Miquela mertzeria / Moma / Morkaiko Mendizale Elkarte / Munlet / Muruamendiaraz / Mutua General de Seguros / Nalai oinetakoak / Napoka Iria / Nuvan / Oin Berri podologia zentroa / Olaia Martinez estetika / Ongi iturgintza / Oihane Osoro interiorismoa / Opel Giauto / Orio Arraunketa Elkarte / Otzarreta harategia / Pagoaga iturgintza / Patxi harategia / Pikumek / Pirritx, Porrotx eta Marimotots / Pitxintxu / Rural Kutxa / Sara fruta denda / S.D Eibar / Sahatxu / Salento / San Roke kafetegia / Sanlo / Sara Jantzidenda / Sigma Jatetxea / Sinuöse / Soarte argazkiak / Sugar / Suministros Evia / Surya belardenda / Swisslan / Talleres Mecanicos J.Larrañaga / Tantaka taberna / Taupada antzeztaldea / TAZEBAEZ s.coop. / Telleria / Txankakua / Txarriduna jatetxea / Txerra Rodriguez / Txillarre eko denda / Txomin harategia / Udal Musika Banda / Urkiola Taberna / Usua terraza / Uxue Alberdi / Uzuri / Xarlem Creations / Yudego Farmazia / Zalao Arnaiz / Zazpi Informatika / Ziarda / Zortziko ezti / Zubi ondo xakea / Zu+Ni / Zuhaitz Gurrutxaga / ...

Elgoibarko Izarraren aldeko
TONBOLA
Abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera
Kalegoen plazan



ELGOIBARKO IZARRA
Euskaltzaleon Topagunea

Elgoibarko Izarraren **TONBOLA**

1.500 erregalu baino gehiago, Kalegoen plazan.

Taloak eta salda beroa. Olentzero eta Mari Domingi.

Eta gu, elgoibartarrok, aparteko herri-giroarekin gozaten! Etorri zu ere!



Cava



Kirola egiteko erlojua



Imanol Agirretxeren kamiseta



"Club Deportivo Elgoibar" liburuak



Brita pitxarra



Bidaiatzeko maleta



Patinetea



Bonboiak



Kalerako poltsak



"Ezekiel", "Ezekiel nora ezean", "Jara" eta "Eskularru beltzak" liburuak



Kremak



Bozgorailuak



Txokolatzeko goxokiak



49" telebista



"Herensugeen itzulera" liburuak



Oparitxoak



Bizikleta



Zartagiak



Bonoak



Bufanda



Kiroletarako kamara



Ahoko kolutorioa



"Alta Porru" komiki-liburuak



Aunkularrak



Zukugailua

...



***Elgoibarko EAJ-PNVk eta
EGIk jai zoriontsuak
opa dizkizue elgoibartar guztioi!***





Betikook betikoa

eta zenbat betikotik. Izan ere, erraz sartuko genituzke nobedade indibidual horiek betiko kolektiboaren poltsan.

Sinplista izan daitekeen arren, horra nire iritzia: betikoak joaten gara betikoa erostera. Ez gaizki ulertu, ni ere betikoa naiz, eta izugarri gustatzen zait betikoa erostea. Baina ez da besterik: betikook, betikoa.

Gehienok egingo genuke bat betikoa eta betikoak zer eta zeintzuk diren/garen definitzerako orduan. Nekez topatuko genuke Durangon betikoa ez den inor, eta kostata aurkituko genuke Durangon betikotasun kontzeptu horiek hankazgora jartzen dituen ezer,

hegemonia (nolabait disidente) hori desafiatzen duenik, edo moldeak hautsi eta zeinu identitario horiek zalantzan jartzea lortzen duenik.

Horregatik gustatu zait aurtengo Korrikako kanta. Zertaz ari naizen ez bada-kizu, nahikoa duzu Youtubera jo, eta bideoan dagoen komentario sorta irakurtzea abesti soil batek sortu duen polemikaren berri izateko. Mad Muasel, La Furia eta Fermin Muguruzak eginiko kantak hori guztia jartzen baitu kolokan, gu geu jartzen gaitu kolokan. Zer den betikoa eta zer den betikoona. Eta azken al-dian sare sozialetan bueltaka dabilen testu horrek dioen bezala, *and I think that's beautiful*.

Duela bi aste eskas izan zen Durangoko Azoka, euskal kulturaren plaza, gure mundu literario eta musikala periferiatik zentrorra ekarri ohi dituen irla. Ederra izaten da kaleketan barrena ibili, kontrazalak irakurri eta poltsa nobedadez beteta itzultzea. Nobedade horiek, ordea, ez dakit zenbat duten nobedadetik

“Nekez topatuko genuke Durangon betikoa ez den inor, eta kostata aurkituko genuke Durangon betikotasun kontzeptu horiek hankazgora jartzen dituen ezer”



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euskal Lehenen Topagunea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENe bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENe ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julien Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



ELGOIBAR
UOLA
KUTUNTAMENTO

LAGUNTZAILEAK:



MENDARO
2008



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► GABONETAN ERE, ORAIN PRESOAK!

Gabon hauetan ere, euskal presoen eta gure herritarra den Sebas Etxanizen eskubideen alde, hainbat ekitaldi antolatu dira Elgoibarren.

- Hilaren 24an, Olentzerok kaleak alaituko ditu presoek eskubideak gogoratzuz. 17:00etan abiatuko da, Kalegoen plazatik.

- Hilaren 28an, hileko azken ostiraleko elkarretaratzea egingo dugu Kalegoen plazan, 20:00etan.

- Hilaren 29an, Gabon zahar feria egunean, giza-katea osatuko dugu Kalebarren plazatik hasita, 13:00etan.

- Urtarrilaren 12an, manifestazio nazionala izango da, bi adarretan banatuta. Bilbon izango da bat, eta Baionan bestea. Estatu espainola eta estatu frantsesa interpelatu nahi ditugu, behingoz beraien legea bete eta euskal presoekin aplikatu dezaten: preso gaixoak eta adinekoak askatu (Sebas Etxaniz barne) ditzatela lehenbailehen, euskal presoak Euskal Herriko espetxeetara

ekar ditzatela, lehen graduen aldaketa egin dezatela (euskal presoek %95 lehen graduan daude, honek dakarren ondorio negatibo guztiekin), eta Europako legeak dioen moduan, bi estatuetako zigorrak batuketaren aplikazioa kontuan hartu dezatela.

Bilboko manifestaziora joateko autobusak antolatu ditugu. Irteera arratsaldeko 16:00 izango da, Txankakuako autobus geltokitik. Izen ematea: Jai Alai, Iturri eta Lanbroa tabernetan.

Gaur egungo egoerak denon inplikazioa eskatzen duelako, animatu eta parte hartu!

Sare Elgoibar

► OHARRA

Iritsi dira Eguberrietako oporrak BARREnera. Datorren astean erredakzioa itxita egongo da, nahiz eta han eta hemen ibiliko garen argazki kamera hartuta Eguberrietako ekintza desberdinetan argazkiak ateratzen. Hurrengo alea urtarrilaren 11n jasoko duzue.

BARREN

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaz:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derigarrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuak egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraokak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitz argitaratuko.





Zorionak eta urte berri on!
Merry Christmas and Happy New Year!

GOKI
erreformak

gabon zoriontsuak!

Olaso pol. 15 - 68 pab
Tel. 943 74 42 23
ELGOIBAR

Irizar, 1 behea
Tel. 943 76 53 42
BERGARA

Errabal, 19 behea
Tel. 943 12 57 41
SORALUZE

www.gokierreformak.com

Gazta, gozo, barazki, fruta eta bestelako produktuen 128 postu jarriko dituzte Gabon Zahar Feria egunean



Abenduaren 29an, urteko azken zapatuan, egingo da ohi legez Gabon Zahar Feria, eta antolatzaileek dena prest dute egun horretarako. Ane Beitia Elgoibarko alkateak, Andrea Arriola Elgoibarko Udaleko Kultura zinegotziak, Blanca Salegi Kultura teknikariak, Joseba Arrizabalaga Landa arloko zinegotziak eta Kalamua Elkarteko hiru ordezkariak aurkeztu zuten martitzenean ferriako egitaraua.

Aurten 128 salmenta postu jarriko dituzte, eta urtero bezala, denetarikoko produktua dastatu eta erosteko aukera izango da postu horietan. Fruta eta barazki sariketa-erakusketari dagokionez, epaimahaikideek 9:00ak aldera bisitatuko dute erakusketak, eta erabakia jaso ondoren, salmenta hasiko da. Sariak emateko orduan, honako baldintza hauek hartuko dituzte kontuan: salgaien kalitatea, mota ezberdinetako salgaiak erakutsi eta saltzea, eta mota bakoitzeko aldaera edo barietate desberdinak. Halaber, 400 euroko sari bat emango zaio mendiak hobekien zaintzen dituen baserriko jabeari.

Nekazal postuen artean, bestalde, postu berezi bat egongo da: aurten: Jakoba Errekondo agronomo eta paisajistaren postua. Besteak beste, *Landareak Lantzen* agenda eta ilargien egutegia salduko ditu, eta horrez gain, nekazaritza zein landare kontueri buruzko zailantzak edo galderak egiteko aukera izango dute herritarrek.

Feria eguna girotzeko, Baltzola Anaiak trikitilariak ibiliko dira kaleetan. Kale Kantariek ere euskal abesti herrikoiak abestuko dituzte, eta Kalegoen plazan, I. Bereziartua Musika eta Dantza Eskolak antolatutako erromeria izango da.

Bolatokiko parkera, Lekueder eta Kalebarren plazara hurbiltzen direnek, hainbat abereren erakusketaz, produktuen salmentaz eta labeldun saiheski pintxoetz gozatu ahal izango dute. Pedro Migel Urruzunon, bestalde, burdineria eta nekazaritza-makineria erakusketak egingo da. Era berean, ArTaldeko kideek artisauek lanen postuak jarriko dituzte Maalako parkean, eta 11:00etatik 14:30era falkoneria erakustaldia egingo dute Kalebarren plazan. Gauetan, berriz, idi gazteen proba egingo dute, Sigmako probalekuan, Sigma Probaleku Herri Kirol Elkartearen eskutik. Gaztetxean, berriz, Fan&Go taldearekin erromeria izango da. (Egitarau guztia agendan duzue).

Urteko gazta onena

Azken urteotan bezala, urteko gaztarik onena aukeratzeko Gabon Zahar Feria egunean, Udalak eta Kalamua elkarteak antolatutako gazta lehiaketan. Urtean zehar gazta lehiaketaren bat irabazi dutenen arteko lehia izango da, eta horietatik irtingo da urteko gazta txapelduna; txapeldunen txapelduna, hain zuzen ere. 12:00etan hasiko da lehiaketa udaltxeko pleno aretoan eta epaimahaikideen lana bertatik bertara jarraitzeko aukera izango dute hala nahi duten herritarrek. Irabazleak 1.500 euroko saria, txapela eta garaikurra jasoko ditu.



Parte hartzaileak

Hamar txapeldun daude zerrendan, baina berderatzik hartuko dute parte Elgoibarren, Araiaiko Unai Lekuonak ez daukalako gaztarik.

- ◆ **La Leze** (Ilarduia): Deba, Bergara, Intxaurren eta Agurainen eginitako txapelketak irabazi ditu.
- ◆ **Jose Luis Odriozola** (Aia): Bilboko eta Elgoibarko txapelketetako irabazlea.
- ◆ **Ipiñaburu**: Azpeitiako gazta-lehiaketako irabazlea.
- ◆ **Jesus Mari Ansola, Mausitxa**: Araia, Plentzia eta Euskal Herriko Gazta Txapelketetako irabazlea.
- ◆ **Kortaria** (Lekaroz): Uharte-Arakil eta Ordiziako gazta lehiaketetako irabazlea.
- ◆ **Patxi Otaegi** (Beizama): Legazpiko irabazlea.
- ◆ **Unai Lekuona** (Araia): Amurrioko irabazlea.
- ◆ **Joseba Baseta** (Atxondo): Azpeko irabazlea.
- ◆ **Azkarra** (Galarreta): Gernikako irabazlea.
- ◆ **Jose Ignacio Ugartemendia** (Berategi): Eibarko irabazlea.

Elena eta Maria Amaro ahizpek irabazi dute aurtengo jaiotza lehiaketa



Domekan izan zen Katekesiak antolatutako jaiotza lehiaketa, eta aurtengoan Elena eta Maria Amaro ahizpek egindako lana izan da irabazlea. Urtero bezala, hainbat estilo eta materialez eginiko jaiotzak aurkeztu dituzte lehiaketara. Guztira 38 umek hartu dute parte, eta 15 lan aurkeztu dituzte. Lehiaketara aurkeztutako jaiotza guztiak San Frantzisko kaleko 24. zenbakian jarri dituzte ikusgai, eta bertan egongo dira urtarrilaren 7ra bitartean. .

Gaur inauguratuko dute parrokiako jaiotza mekanikoa

Elgojaiotza taldeak gaur inauguratuko du parrokiako jaiotza mekanikoa. 20:00etan izango da inaugurazio ekitaldia, eta bihartik aurrera zabalduko dute publikoarentzat. Asteleheneetik ostiralera 17:30etik 20:30era egongo da zabalik, eta asteburu eta jai egunetan, berriz, 10:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era.



Mendaroko merkataritza sustatzeko kanpaina

Merkataritza txikia sustatzeko kanpaina jarri dute martxan Gabonetarako, Mendaroko Udalak eta merkatariek elkarlanean. Bost euroko erosketa bakoitzeko, establezimen-duk hamar zenbakidun txartel bat emango dio erosleari, zozketa batean parte hartzeko. Urtarrilaren 6an egingo dute zozketa. Erregetako loteriako lehen, bigarren eta hirugarren zenbaki sarituekin bat datozen txartelek jasoko dute saria. Mendaroko dendetan gastatzeko hiru erosketa txeke izango dira sariak: 250 eurokoa, 150 eurokoa eta 100 eurokoa. Sariutako txartelen jabeek hamar eguneko epea izango dute saria jasotzeko, hau da, urtarrilaren 18ra arte.

Mus txapelketa jokatu dute bihar, Batzokian

Elgoibarko Batzokiak laugarren mus txapelketa antolatu du biharko. Izena emateko 20 euro ordaindu behar dira. Interesatuak 634 517 468 telefonora deituta edo Batzokian bertan eman dezakete izena. Musaldia 16:00etan hasiko da. Irabazleek txapela eta garaikurra, bi lagunentzako afaria eta bildutako diruaren %50 jasoko dute saritzat. Bigarren saria garaikurra, produktu sorta eta bildutako diruaren %30a izango da, eta azkenik, hirugarren saria, lau ardo botila eta bildutako diruaren %20a.

650 inkesta jaso ditu Elgoibar Lagunkoia ekimenak

Guztira 647 herritarrek erantzun dute Elgoibar Lagunkoia ekimenaren inkesta. Orain, emaitzak aztertu eta 2019ko uda ostean aurkeztuko dituzte ikertutako zortzi arloetan antzemandako gabezi eta indarguneak. Parte hartu duten guztien artean, Txankakua Merkataritza Elkartearen dendetan gastatzeko 300 euroko bonoa zozketatu dute, eta zenbaki sariduna 807 izan da.

Behin-behineko aparkalekuak egokitu dituzte pista beltzean garajeak dituztenentzat



Pista beltzeko obrek zuzenean eragiten diete 150 garaje baino gehiagoko jabeei, eta horientzako beste aparkaleku batzuk egokitzea erabaki du Udalak. Gune horietako bat Arreiturre institutuko patioa izango da, non 50 aparkaleku egokitu dituzten, eta beste bat, Santa Anako biribilguneetik Azkuera doan bidea (47 aparkaleku). Gune horietan aparkatu ahal izateko txartelak banatu dizkiete garaje jabeei. Azkuera daraman bidean 47 aparkaleku sortu ahal izateko, bidea noranzko bakarrekoa izango da. Hala, Santa Anako biribilguneetik Azkuera igotzen diren ibilgailuak bakarrik igaro ahal izango dira bertatik. Azkenik, Sigmako aparkaleku estalian ere aparkatu ahal izango dute txartela duten ibilgailu jabeek, ordu mugarik gabe.

Cruz Arriola enpresaria hil da

Cruz Arriola enpresaria hil zen astelehenean, 90 urte zituela. Erreminta makinaren alorrean lan asko egindakoa zen. 14 urterekin hasi zen lanean Sigma lantegian, eta 18 urte zituenean Herola esportazio enpresa sortu zuen beste lan-kide batzuekin. Era berean, Lagun enpresa sortu zuen 1952an, eta Geminis, 1959an. Horrez gain, AFM makina-erremintaren klusterreko presidentea izan zen, 1962an. 1974an Maherhoding sortu zuen beste fundatzaile batzuekin elkarlanean, eta administrazio kontseiluko presidentea izan zen luzaroan, eta ondoren, ohorezko presidente izendatu zuten. 1982tik 1995era Adegiko, Gipuzkoako enpresarien patronaleko, presidenteordea izan zen. IMHko Fundazioa eratu zenean, 1989an, enpresa fundatzaile eta IMHko Patronatuko enpresa ordezkari moduan parte hartu zuen, 1995ean erretiroa hartu zuen arte. Gipuzkoako Merkataritza Garbarako presidenteorde kargua ere bete zuen, eta 2000 urtean XX. mendeko Gipuzkoako enpresari onenaren saria eman zioten.



Gaur bukatuko da Isiltasun Eskolaren mintegia

Urte amaierari begira, meditazio mintegia antolatu du Isiltasun Eskolak. Hiru saio prestatu dituzte, eta gaur egingo dute azkena. *Ezaguera honek munduan murgiltzen gaitu* izenburua izango du gaurko jardunak, eta 19:00etan izango da, Kultur Etxeko sotoan. Jose Cruz Igartua elgoibartarrak gidatuko du gaurko saioa ere. 1973an ordenatu zen abade, Jose Maria Setienekin, Elgoibarko parrokian, eta gero, Bilboko auzo batean egon zen apaiz sei urtez. Madrilera joan zen ondoren, eta gaur egun han dihardu, elizako lanak hitzaldiekin, mezekin, konfesioekin, zein bestelako meditazioekin partekatuz. Elgoibarren hilabetean behin meza ematen du, baita batzuetan sermoiak ere.

Presoen aldeko ekitaldiak egingo dituzte Gabonetan

Elgoibarko Sarek antolatuta, presoen eskubideen aldeko hainbat ekitaldi egingo dituzte Gabonetan. Hasteko, Olentzeroren kalejira egingo dute abenduaren 24an, *Sebas Etxera* lemapean. 17:00etan hasiko da Kalegoen plazan. Goxokiak banatuko ditu Olentzerok, eta mokadutxoak ere egingo dute. 19:00etan argazki erraldoia aterako dute Maalako parkean. Hilaren 28an, bestalde, azken barixakuko elkarretaratzea egingo dute Kalegoen plazan, eta, azkenik, Gabon Zahar Feria Egunean gizakatea egingo dute, 13:00etan Kalebarren plazan. Urte berriari begira, urtarrilaren 12an Bilbon eta Baionan egingo diren presoen aldeko manifestazioetara joateko autobusak antolatu dituzte. Jai-Alai, Lanbroa edo Iturrin erosi daitezke tiketak.

Belaustegi Baserria



JATETXEA

*Etxekoekin batera
gozatu ospakizunak
lekua har dezatela
bake eta maitasunak.
Besarkada bat bihotzez
Urte berri on, lagunak!*

www.belaustegi.com

San Migel Gaina z/g

Tel.: 943 743 102





▶ SEBER URIBE

IGERIKETAKO ENTRENATZAILEA

Judoa eta igeriketa egin zituen umetan Seber Uribek (Ondarroa, 1976), harik eta sorbaldako lesio batek judotik urrunduz arte. Orduan hasi zen sendo igerian. Kirol askotan ibilitakoa da, baina musikarako ere zaletasun handia du [Gatz taldeko baxu jolea da egun]. Gurasoen arrain-enpresan lortu zuen lehen soldata, baina enpresa itxi zutenean, igeriketa eskolak emateko prestatu zen, eta geroztik, hor dihardu. Sorosle eta begirale jardun zen, eta 26 urterekin, Ondarroko Igeriketa Taldeko entrenatzaile izendatu zuten. Bi urte egin zituen herriko harrobia sendotzen. Ondorengo bost urteak Durangaldean egin zituen, igeriketa, pilates, spinning, body pump eta antzeko kirol modalitateak ematen, eta Kataluniara egin zuen salto gero. Sabadelgo Igeriketa Klubean jardun zen ikasten eta lanean, Europako klub erreferente eta aitzindarian, eta izugarri ikasi zuela dio. Hango ereduak ekarri zuen Elgoibarrera, eta zazpi urtean, ikaragarri hazi dira igeriketako talde ezberdinetan izena emandakoen kopuruak. Zapatuan, Kirol Patronatuk antolatu zuen fibrosi kistikoa dutenen aldeko ekimenean parte hartu zuen.

- AINARA ARGOITIA -

♦ Zer balorazio egiten duzu zapatuko ekimen solidarioaz?

Oso ona. Beldur pixkat baneukan lehenengo aldia zelako hemen halako zerbait egiten genuena, baina igerilariek oso ondo erantzun zuten. 13 urteko iloba, Elene, daukagu guk etxean fibrosi kistikoarekin, eta uda partean Ramon Mujika [Kirol Patronatuko zuzendaria] etorri zitzaigunean Jose Angel Agirreri eta biori galdetza ea ekintza solidarioen bat egiteko aukerarik ikusten ote genuen, baietza eman genuen. Sei hilabete zituela diagnostikatu zioten fibrosi kistikoa Eleneri eta ordutik Arnasa elkarteari laguntzeko mila ekimenean ibili gara [Fibrosi kistikoa dutenen Gipuzkoako elkarte da Arnasa]. Sabadelgo Igeriketa Klubean lanean ibili nintzen garaian ere egin genuen halako ekintzaren bat, esklerosi anizkoitza dutenei laguntzeko, eta han egin genuenaren eta beste leku batzuetan egin ditugun itxurako zerbait egitea erabaki genuen. Eta oso pozik gaude emaitzarekin. 107 igerilarik parte hartu zuten, eta 153 kilometro osatu genituen igerian, fibrosi kistikoa dutenekiko elkartasunez. Dirua batzeko ekimena ere bazen, eta hor ere esan dezakegu eskuzabal jokatu zuela jendeak. Kutxa bat jarri genuen sarreran, jendeak borondatea utzi zezan, eta 518,13 euro batu genituen. Gainera, Sanlok ere bat egin zuen ekimenarekin eta egun horretako partidaren saldu zituzten errifen dirua ere ekimen honetarako eman zuten: 368 euro. Horrez gain, Kirol Patronatuak ere diru kopuru bat jarriko du ekimen honetarako. Arnasarentzat izango da diru guztia.

♦ Jarraipenik izango al du honek?

Bai, asmoa hori da.

♦ Zazpi bat urte daramatzazu zuk Elgoibarren, entrenatzaile.



“153 kilometro egin genituen igerian zapatuan fibrosi kistikoa dutenekiko elkartasunez”

Denbora horretan asko hazi da igerian ikasteko/trebatzeko ikastaroetan izena emadako kopurua. Zer topatu zenuen iritsi zintenean? Zer da gaur? Zein izan da zure ekarpena?

2011n, bost lagun zeuden Master taldean eta hamabost bat igeriketa eskolan. Gaur, ostera, 45 lagun daude Master taldean, eta 100 bat igeriketa eskolan. Lan handia egin dugu, gauzak diren moduan esanda. Igeriketa ikastaroetan, berriz, ia 300 bat lagun ditugu, 250 bat, 3 eta 7 urte artekoetan, eta 40 bat, nagusietan. Esango nuke ni iritsi nintzenean ez zegoela Elgoibarren igeriketarako kultura handirik eta filosofia aldaketa bat ekarri dudala.

♦ Azalduguzu filosofia hori.

Txikienekin lan egiteko ez da metodologia jakinik behar, baina bai eskua eta psikologia handia. Ekarpentik egin badut, igeriketa eskolari eta master taldeari egin diot. Igeriketa eskolan ez zegoen profesionaltasunik. Eskola kirolerako baimenarekin lehiatzen zirenen umeekin, adibidez, ez zen lehen entrenatzailekerik joaten, eta apur bat lagata ikusten nuen gai hori. Horri forma eta seriotasun apur bat ematen ahalegindu nintzen eta ikasleei neure metodologia eta filosofia erakusten. Metodologia igerilarientzat lagako dugu igerilari ez diren irakurleek ez dutelako ulertuko beharbada, baina filosofia azalduko dizut. Eskola kiroleko adinean dauden umeekin ez naiz entrenatzaile lehiakorra eta ez dut lehia sustatzen. Hori dut ezaugarrietako bat. Igerilariek oinarri handia izatea gus-



tatzen zait; teknika menperatzea. Kalitatea lehenesten dut. Neu ere izan naiz ume eta sufritu dut lehiak dakarren exigentzia edo karga hori. Lehiak gain hartzen duenean, arriskua egoten da umea higuintzekoa. Guk beste filosofia batekin lan egiten dugu, baina hala ere, txapelketetara joan garenetan erakutsi dugu saio gutxiagorekin, baina kalitate handiagoarekin besteen mailan aritzeko gai garela.

♦ **Lehia puntu hori barik umeak motibatzea zaila dela esango dizute bakarren batzuek.**

Hori ere hala da. Oreka mantendu behar da, eta ez da beti erraza. Nik ez dut behartzen inor lehiatzera, baina egia da ume eta guraso batzuek behar dutela. Umea nolako den aztertu behar da lehenengo, igerirako dituen ezaugarriak albora lagata, eta ikusi nola motibatu daitekeen, baina nahi ez duen zerbait egitera behartu barik. Egia da, baina, urte osoan entrenatzen dabilenak behar dituela helburu batzuk, motibatuta jarraitzeko. Gure helburua da txapelketetako probak egiteko gai izatea. Gero, eurek erabakiko dute aurkeztu edo ez.

♦ **Zer da masterren taldea?**

25 urtez aurrerakoan kategorია da masterrena. Masterren barruan ere kategoría ezberdinak daude, bost urteko adin tarteka. Igerileketako probetan zein itsas zeharkaldietan lehiatu daitezke, taldeka zein bakarka, eta horrez gain, lagun talde handi bat da masterrena. Jakina, igerian maila jakin bat izatea ere ezinbestekoa da taldean sartzeko. Gure taldean ez da egon igerilari izandakorik eta horren falta igartzen da, Elgoibarko masterrek ez dutelako jakin igerileku estalietan lehiatzea zer den eta zein polita den. Orain, itsas zeharkaldiek sekulako arrakasta dute, eta Elgoibarren ere horietarako prestatzen gara neguan. Horretarako, eta neguan urtero egiten dugun erakustaldirako. Ondarroa, Deba, Getaria-Zarautz eta Mutrikuko zeharkaldietara joaten gara taldean eta izugarri ondo pasatzen dugu. Anoetako kiroldegira ere beti egiten dugu irteera bat, 50 metroko igerilekuan entrenatu eta gero elkarrekin sagardotegira bazkaltzera joateko. Primerako giroa daukagu taldean. Lagunartean kirola egiteko filosofiari eusten diogu masterren taldean. Nik garbi daukat hiru ume nonbaiten utzita, kantza-kantza eginda igerilekura datorrena igeri egitera datorrela,

baina baita lagunekin egotera ere eta igeriketa-saioa amaitutakoan garagardo bat hartzera. Neu naiz halakoxea, eta nik hala ulertzen dut masterren taldea. Denbora berdina eskaintzen diot ondo dabilenari eta makalago dabilenari. Ez naiz ni lau kronometrokin denborak zaintzen egotekoa. Horren biktima neu izan naiz. Hori da nire ikuskera, eta estimatzen dute hemen. Urteko planifikazioa egiten dugu, helburu ezberdinak denboran ondo sakabanatuta, eta hori izan daiteke master taldearen arrakastaren beste arrazoietakoa bat.

♦ **Modan al dago igeriketa?**

Esango nuke kirolerako zaletasuna handitu dela. Lehen, bi lagun altxatzen ziren Karakatera korrika, eta orain, dozenaka. Egia da igeri egiteak onura besterik ez dakarrela eta beste kirol-tan ibili direnetako askok igeri egiten bukatzen dutela. Praktiko eta ekonomikoa da.

♦ **Zeintzuk onura ditu?**

Igerian edozeinek egin dezake. Behar baino hogeiki kilo gehiago dauzkanari inork ez dio gomendatuko Karakatera korrika igotzea, baina pertsona hori beste edozein beste izan daiteke uretan. Urak berdintzen gaitu: lodiak, meheak, adinekoak, umeak, bizkorak, makalak, diskoko hernia daukanatenak... gorputz guztientzat da onuragarri igeri egitea. Ansietatea edo beste arazo psikologikoren bat dutenentzat ere lagungarria da igeri egitea.

♦ **Jende asko dago igeriketan izena emanda Elgoibarren. Nola egiten duzu denak kabitzeke?**

Garbi daukat, nahi izanez gero, beti egokitu gaitezkeela daukagunera, baina egia da gaur oso zaila daukagula Elgoibarren. Ahaleginak eta bi egiten ditugu ordutegiak estutzeko eta denok kabitzeke, baina egia da ez dagoela lekuri eta elkarren gainean gabiltzala. Talderen batean izena emanda ez duenak nekez topatuko du lekuri igerilekuan, ordu guztiak hartuta dauzkagulako. Igerilekua txikia eta zaharra gelditu da.

♦ **Zer irizten diozu igerilekua handitzeko proiektuari?**

Ez daukat baloratzeko behar besteko informaziorik eta ezin dizut erantzun. Baina daukaguna hobetzeko eta handitzeko den proiektua gustura hartuko dugu guk.

♦ **Eskola kirolean aritzeko baimenarekin lehiatzen dira zuen umeak. Badakigu 13 urte betetzean Eibarko taldera joan behar izaten dutela batzuek (Iker Calvo, Ekaitz Lago...), lehiatzeko fedederatuta egon beharra dutelako. Ez duzue pentsatu behar diren lizentziak lortu eta herrian igeriketa talderik sortzea, gazteek Elgoibarren izenean lehiatu ahal daitezen?**

Bai, gertatzen zaigu hori eta pena hori badut. Ume horiek nirekin egin dira igerilari eta ez dizut ukatuko: sekulako mina ematen dit ikustea behin adin horretara iritsita ezin diedala hemen beste ezer eskaini. Neure umeak dira, nirekin ikasi dute igerian, sekulako lana egin dugu Elgoibarren haiekin eta kanpora bidali behar izan ditugu. Gaur hori da gure errealitatea, baina bai, bistan da niretzat behintzat polita litzatekeela egunen batean Elgoibarko igerilariak herriko igeriketa taldearen izenean lehiatu ahal izatea.



**Zorionak
eta
urte berri on!**

ZA
ZURE ALDE

Iñaki Gil Azpilicueta
ABOKATUA

Zibil-Jabetza horizontala
Komunitateen kudeaketa

Jausoro plaza, 3 -behea gilazpilicueta@zurealde.net
943 531 351 Elgoibar

ARAMBURU BITXIDENDA

San Frantzisko, 26
Tel./faxa: 943 74 25 35

Erosi zure erregalua Aramburu bitxidendan eta
250€-ko bi baleen zozketan sartuko zara.

50

urteurrena



50 urte
zuekin bidaiatzen.
Jai zoriontsuak!!

Pol. Ind. Igartualdea, 27
20850 Mendaro - Tel. 943 741 677
www.dariobus.com - clientes@dariobus.com



urkotronik
OSTALARITZAN ETA
VENDING-EAN ADITUAK.
1983 GEROZTIK.

**ZORIONAK
ETA URTE BERRI ON!**

www.urkotronik.com

943 203 112 / 902 127 137
urkotronik@urkotronik.com



GABON HAUETAN OPARITU IRRIBARRE BAT
KAFE BATEK BALIO DUENA BAINO GUTXIAGOGATIK!

INPLANTE TRATAMENDU OSOA
(INPLANTEAK + KOROA + ERRADIOLOGIA PROBA)
22,60 EURO HILEAN



ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

1.085 euro 48 hilabetetan ordaintzeko aukera. Entitateak onetsi behar du promozioa.

RPS233/13



Kirol Federatuaren Urteko Sarietako saridunak, Inazio Bereziartuako auditoriumean egin zuten ekitaldian.



Maialen Alonso
(Egokran Judo Kirol Kluba)



Txitxibilaldiak Emankumeen Taldea
(Morkaiko Mendizale Elkarte)



Lorea Gabilondo
(Sanlo, eskubaloia)



Jose Luis Garcia
(Zarta arku tiraketa)



Eider Iglesias
(Mintxeta Atletismo Taldea)



Felipe Calleja/Tomas Salegi
(Lagun Taldea Txirrindulari Elkarte)



Marta Díez
(C.D. Elgoibar)



Ibon Herrero
(Olaizaga Kirol Taldea, karatea)



Martin Dominguez
(Elgoibarko Igeriketa Taldea)



Kirol kudeaketa eta lidergoari buruzko mahaingurua egin zuten: **Gurutz Aginagalde** (Irungo C.D. Bidasoa eskubaloitako taldeko lehendakaria eta jokalaria ohia), **Guruzne Azpiroz** (San Juan-Koxtaperen emakumeen traineruaren entrenatzaile berria), **Patricia Maraña** (Real Sociedad belar hockey taldeko kapitaina) eta **Andoni Azkargorta** (S.D. Eibar futbol taldeko entrenatzailearen laguntzailea).



Lupe Gonzalez (Lagunak Pilota Eskola)



Iraitz Txurruka (La Union, ehiza)



Aitor Guerrero
(40x15 Tenis Elkartea)



Igor Torres
(Elgoibarko Triathloi Taldea)



Arantzazu Zabala
(Zubi Ondo Xake Elkartea)



Miguel Castro
(Urbizi Urpeko Jardueren Elkartea)



Angel Bideluze
(Urnobitza Kirol Kluba, motoak)



Agustin Irusta
(Sigmako Probalekua Elkartea)



Maidier Mantecon (Hipika)
(Udal Kirol Patronatua)



Antonio Azpiazu (Pilota)
(Udal Kirol Patronatua)



Leire Garate (Arrauna)
(Udal Kirol Patronatua)



“Euskarak iraungo du, baldin eta hiztunek irauteko borondatea baldin badute”

► PATXO TELLERIA AKTOREA

Ghero, azken euskalduna antzezlana taularatuko du gaur iluntzean Tartean Teatroak, Herriko Antzokian. Tartean Teatroak eta Euskaltzaindiak elkarlanean sortutako obra da, akademiaren mendeurrenaren harira. Protagonista nagusia euskara da, eta nolabait esateko, euskararen iraupenari omenaldia egiten diote obran. Euskarari ez ezik, hizkuntza guztiei egin nahi diete gorazarre, hizkuntza aniztasunari, eta horretarako, dozena bat hizkuntza desberdin erabiliko dituzte obra honetan. 20:30ean hasiko da antzerkia.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Nola sortu duzue ‘Ghero, azken euskalduna’ obra?

Euskaltzaindiaren enkarguz sortutako obra da. Gure konpainian egin izan ditugu euskarari buruzko beste lan batzuk, eta akademiaren mendeurrena ospatzeko euskararekin zerikusia izango zuen lan bat eskatu ziguten.

◆ Euskara da obraren protagonista. Zertan datza?

3000. urtean kokatzen da istorioa. Urte horretan munduan hizkuntza bakarra hitz egiten da, baina familia batean tematu egin dira euskara gordetzen. Belaunaldiz belaunaldi jaso dute euskara, baina azken euskaldunak ez dauka oinordekorik; azken euskalduna da, eta ospitalean dago, hil zorian, eta berarekin euskara ere hiltzeaz dago. Euskararen iraupenari eginiko harridurazko omenaldi moduko bat da, harrigarria iruditzen zaigulako horren hizkuntza txikiaren iraupena. Erromatarren garaian ere hizkuntza zaharra eta txikia zen euskara, eta oraindik bizirik dago. Latina, aldiz, bi mila urte beranduago historiara pasata dago. Gauza harrigarriak gertatzen dira euskararekin.

◆ 3000. urtean existituko al da euskara?

Batek baino gehiagok esan dit “azken euskalduna 3000. urtean? ze pesimista!”. Baina niri ez zait pesimista iruditzen, kontra-koa dela esango nuke. 3000. urtean euskarak irautea duela esaten badidate, oraintxe bertan sinatuko nuke. Orain dela bi mila urte latina zen munduko hizkuntza globala, gaur egungo in-

gelesa zen, eta mila urte geroago galdu egin zen. Hizkuntzak galtzea oso erraza da, eta hizkuntza txikiei asko kostatzen zaie aurrera egitea. Euskarak iraungo du, baldin eta euskal hiztunek irauteko borondatea baldin badute. Soziolinguistikak azaltzen duen moduan, batzuetan hizkuntzek gauzak alde izaten dituzte, eta beste batzuetan, kontra. Euskarak historian zehar baldintzak kontra izan ditu ia uneoro. Historian lehenengo aldiz, orain hasi dira politikoki euskara zaintzen, edo gutxienez, euskarari ez erasotzen.

◆ Euskarari ez ezik, beste hainbat hizkuntzari ere egiten diozue gorazarre obran.

Bai, azken batean, hizkuntza aniztasunari egiten diogu omenaldia, eta obran zehar hizkuntza desberdinak erabiltzen ditugu. Ikusleak, baina, uneoro ulertuko du zer esaten ari garen, eta hitz konkreturen bat ulertzen ez badu, testuinguruari esker ez du arazorik izango obra ulertzeko.

◆ Zein generotan kokatzen da obra?

Guk komedia lantzen dugu bereziki gure konpainian, baina obra hau ez da guztiz komikoa. Badauka komedia puntu bat, baina hausnarketarako aukera ere ematen du. Zer zentzu dauka hizkuntzak gordetzea? Ona al da hizkuntza aniztasuna ala hobe litzateke mundu osoan hizkuntza bakarra hitz egitea? Guk gure tesia azalduko dugu, baina bakoitzak bere erantzuna izango du.



Innovation
that excites



APROBETXATU
WLTP ARAUDI BERRIA ETA
LORTU **NISSAN X-TRAIL** BAT
LIKIDAZIO PREZIOAN. 50 DITUGU!
GAURSAN BAKARRIK.

GAURSA

Otaola Hiribidea, 22 - 20600 Eibar - Tel. 943 82 09 74

Kontsumo mistoa: 4,9 - 6,4 l/100 km. CO₂ isurpenak: 129 - 149 g/km. Europar Batasuneko araudiaren arabera homologatutako kontsumoa.

“Familian elkarrekin zerbait egitea izan da ipuina sortzearen alde aberasgarriena”

▶ ANDER ERRASTI IDAZLEA

Herensugeen itzulera ipuina sortu dute familian Ander Errasti eta Sonia de la Maza senar-emazteek eta Jon eta Maite 11 eta 9 urteko seme-alabek, eta gaur aurkeztuko dute Elgoibarren (19:00etan, Kultur Etxean). Liburu hiru hizkuntzatan eman dute: euskaraz eta gazteleraz, euskaraz eta ingelesez eta gazteleraz eta ingelesez eta Pitxintxun jarri dute salgai.

- AINARA ARGOITIA -



◆ Nolatan bururatu zitzaizuen familian ipuina sortu eta editatzea?

Seme-alaben proposamen baten ondotik etorri da dena. Hainbat liburu dauzkate editatuta eta seme-alabek galdetu zidaten ea idatziko ote genukeen liburu bat elkarrekin. Azaldu nien liburu bat argitaratzek zer nolako lana duen atzean; garbi utzi nien ez zela batere prozesu erraza, baina saiatu gintezkeela esan nien, eta halaxe hasi ginen O-tik ipuina idazten. Umetan lotarako kontaktzen genizkien ipuinetako gaiaren inguruan idatziko gurela erabaki genuen, herensugeen inguruan.

◆ Zein metodo erabili duzue taldean idazteko?

Nik beti erabili izan dudana metodo bera erabili dugu. Adostu genuen korapilo nagusia, adostu genituen zer eta noiz eta nola kontaktuko genuen eta baita pertsonaien ezaugarriak ere. Euren ilusioak eta nahiak proiektatu dituzte seme-alabek pertsonaietan, eta hori bera oso lagungarri izan zaie, denok dakigulako nerabe sasoiaren ezer ez dela erraza. Behin eskema nagusia adostuta, poliki-poliki idatzi eta egin ditugu testu eta ilustrazioak, elkarrekin. Lan batzuk banatu ere egin ditugu, ipuinak horretarako aukera ere ematen duelako. Nik neuk asko bidaiatzen dut atzerrira lan kontuengatik eta batetik besterakoetan galtzen ditudan orduetan aurerritzen nituen ilustrazio lan batzuk, etxera itzultzean denok elkarrekin margotzeko. Bi urte eta erdiko prozesu bat izan da. Jakina, ez gara jardun bi urte eta erdian jo eta sua, egon direlako ezer egin gabeko asteak ere. Horretan ez dugu presiorik izan,

geuk geure buruari jarritakoaz aparte. Azkenera azkartu behar izan dugu dena apur bat, Durangoko azokarako argitaratu ahal izateko, baina bestela, lasai ibili gara, gure ahale barruan. Idatzi, marraztu eta itzuli. Prozesu osoa geuk egin dugu.

◆ Zer izan da guzti honetan aberasgarriena?

Familian elkarrekin zerbait egitea. Lan kontuengatik ez dut nahi beste denbora egiten etxean, baina liburu honi esker denbora hori inoiz baino hobeto aprobetxatu dudala iruditzen zait. Entreenimendu aktibo bat izatea lortu dugu. Gaur egun pantailei begira ditugu umeak, eta geure ondoan izanda ere, apenas izaten dugun haiekin harremanik, badakigulako trepetak horiek zer duten: urrutiko gauzak gerturatzen dizkigute, baina gertukoak urrundu. Seme-alabak ahaleginaren kulturaren hezteko ere lagungarri izan zaigu proiektu hau; umeek ulertarazteko ezer ez dagoela hemen ahaleginik eta lanik egin gabe. Talde lanean ere trebatu gara, bide batez: dena adostu behar izan dugu eta adostasuna lortzeko prozesuan gure arteko harremana sendotu dugu. Eta azkenik, seme-alabak euren konfort egoeratik ateratzeko ere balio izan du. Duela hamabost egun, ez zuten euren burua 40 bat lagunengatik egin dituzte liburuak aurkezteko eta oso ondo moldatu dira. Erronka berriei euren kabuz erantzuten ikasi dute. Oso aberasgarria izan da, guztiz esperientzia gomendagarria. Animatuko nituzke denak familian zerbait egitera, dela ipuin bat sortzea edo beste edozer.

2018 urteari errepasoa





■ Duintasuna elkarteak aurkeztu zuten urtarrilaren 25ean Elgoibarren, Gipuzkoako pentsiodunen eta jubilatuen elkarteak. Jubilatu eta pentsiodunen beharrei erantzuteko sortu zuten elkarteak 2012an, baina Elgoibarko aurkezpenean, pentsioen gaian jarri zuten arreta. Pentsioak apaltzen doazela salatu zuten, eta Espainiako Gobernuak onartu zuen %0,25eko igoera "miseria bat" zela gehitu. Salatu zuten pentsiodunek sei urte zeramatzatela erosteko ahalmena galtzen eta etxe askotan gorriak ikusten ari direla.



■ Jose Julian Marquez elgoibartarrak Historiarreko Errepliken Museoa zabaldu zuen urtarrilaren 27an, Artetxeko eskola izandako eraikinean. Museoa bisitatu nahi duenak Marquezekin berarekin jarri behar du harremanetan, josejumarquez@gmail.com helbidera idatzita.



■ Elgoibarko Triatloi Taldea sortu zuten herriko triatloi zale gazte batzuek, desagertutako Urgazi taldeak lagatako lekua betetzeko. Hogei lagun ingururekin abiatu zen taldea, gizonezkoak denak. Mikel Gurrutxaga eta Iñaki Gabilondok eman zuten haien asmoen berri.

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
 cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62


MEKANOSA
 Errosario, 27
 Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX


LAGUNAK
 colchonaria textil hogar

KALITATEZKO ATSEDENEAN ADITUAK

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com





■ Mugertza krosari eta Morkaikoren 75. urtemugari eskaini zioten aurtengo zigilu erakusketa Altzolatarren Dorretzekoek. Jose Luis Diezek jaso zuen oroigarria Mintxeta Atletismo Taldearen izenean, eta Aitzol Arriolak, Morkaikoren izenean.



■ Mugertza Krosaren iraganak eta orainak bat egin zuten krosaren 75. urteurrena ospatzeko urtarrilaren 12an Herriko Antzokian egin zen ekitaldi jendetsuan. Txapeldun handiak lehiatu dira Mugertza krolean eta atletismoan mito izan diren horietako asko batu zituzten ekitaldian. Urteurrenak are bereziagoa egin zuen krosa bera ere. Euripean eta lokatz artean jokatu zuten. Emakumezkoen lasterketa nagusia Ruth Jebetek irabazi zuen (Bahrein, 1996). Gizonezkoetan, berriz, Selemon Barega (Etiopia, 2000) gailendu zen esprintean.





■ Etxegiña taldeko koplari gisa irten den azkeneko aldia izan du aurtengoa Kepa Urain mendarorak, 79 urterekin. 38 urte egin ditu koplari gisa eta taldekideek urte-etan egindako ahalegina eskertu zioten omenaldi xume batekin.



■ Memoriarako eguna izan zen otsailaren 9a Elgoibarren, 36ko Gerran Errepublikaren alde duintasunez borrokatu zutenei duintasuna itzultzeko eguna. Izan ere, gerran hildako 24 lagunengorpuak hobiratu zituzten Olasoko hilerrian, Duintasunaren Kolunbarioan. Horietako hiru identifikatutakoak: Ramon Portilla CNTkoa; Millan Zabala, Donostiako Udaleko Gauzainen Kidegoko langilea eta Nicolas Obregon Eusko Gudarosteko CNTren Sacco Wanzetti batailoiko kaboa.



■ Joxe Martin Urrutia Txotxe antzerkigilea hil zen otsailaren 4an. Urrutiak Taupada antzerki taldean eman zituen aurreneko pausoak antzerkiaren munduan, eta 1987an Ekekei taldea sortu zuen, Mikel Osoro, Xabier Ansola eta Iñaki Odriozolarekin batera. Ordurako, baina, Karrika antzerki talde amateurra sortu zuen Durangon. Antzerkigintza irakasgai moduan ere ezarria zuen Kurutziaiga ikastolan hango irakasle zela eta hainbat belaunaldi markatu zituen.

■ Zarta taldeko Javier Varona arkulariak Euskadiko Txapelketa irabazi zuen. Elgoibarren jokatu zen Euskadiko Aretoko Arku Tradizionaleko eta Arku Biluziko VIII. Txapelketa eta Euskal Herriko arkulari onenak lehiatu ziren. Arku instintiboetan lehiatu zen Varona, beste 27 arkularirekin batera, eta berak jantzi zuen txapela.

IKASBAI
AKADEMIA
IKASGO
ACADEMY

IKASBAI
AKADEMIA
KLASE PARTIKULARRAK

- LH
- DBH
- GAI GUZTIAK
- TALDE TXIKIAK
- EUSKARA ERREFORTZUA

667 261 248 Basarte 13, behea - Elgoibar
(Leire) akademielgoibar@gmail.com

Maria Urizar
Ileapaindegia

Errosario kalea, 9 - 1 ezk.
Tel.: 943 744 489 - Elgoibar
maria.urizar@hotmail.com

ASESORIA
GOAR

KONTABILITATEA
AHOLKULARITZA FISKALA
ASESORIA LABORALA

San Bartolome, 2 behea - Elgoibar Tel: 943 742 674 / 943 740 234
asesoria@asesoriagoar.com Faxa: 943 742 129



■ Hautsak harrotu zituen C.D. Elgoibar eta Idiazabal futbol taldeek otsailaren 17an jokatu zuten partidak, edo zehatzago esateko, epaileak jokalariei egindako ohartarazpenak. Euskaraz eginenez gero, kaleratu egingo zituela mehatxu egin zien epaileak jokalariei eta gertaera hark nazioarteko komunikabideetan ere izan zuen oihartzuna. Bi klubetako presidentek prentsaurrekoa eman zuten elkarrekin, gertatutakoa salatzen.



■ Nerea Sasiainek Gipuzkoako errekorra ondu zuen 400 metroko lasterketan, eta jubenil eta junior mailako errekorra ezarri zuen. Astebete geroago urrezko bi domina eskuratu zituen Euskadiko Txapelketan, 200 eta 400 metroko lasterketan eta Espainiako Txapelketarako sailkatu zen. Espainiakoan, laugarren egin zuen 400 metroko lasterketan, eta, gainera, finalerdietan, 20 urtez azpikoen Euskadiko errekorra ondu zuen 56 segundo eta 77 ehuneneko denbora eginda.

■ Iñigo Lariz eta Maite Maiora Euskal Herriko mendi eskiko txapeldun izendatu zituzten, Bandres-Karolo Memoriale irabazita. Larizek 38 minutu eta 58 segundoan osatu zuen igoera, eta 45 minutu eta 33 segundoan, Maiorak.

RPS 183/12

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359
www.uzurioptika.com

Boleto hau ekarriz gero 10€ko deskontua eskuratuko duzu zure erosketan. Erosketa bakoitzeke txartel bat.

Beste deskontuekin ez da metagarria. Baliozgarria abenduaren 31 arte.



40.
urteurrena
UZURI
optika audio






Lehenengo aldiz, nazio mailako grebara deitu zuten Euskal Herriko mugimendu feministak, gehiengo sindikalak eta hainbat gobernu kanpoko erakundek Martxoaren 8rako, *Emakumeok planto* lelopean. Emakumeen lanak gure gizartean duen eragina ikustarazteko eta lan hori aintzat har dadila eskatzeko gelditu ziren emakumeak. Emakumeen ekarpenik gabe, gizartea geratu egiten dela erakutsi nahi zuten, eta protesta gisa, egun horretan lehioetan amantalak eskegitzeko eta besoko moreak janitzeko eskatu zuten deitzaileek.



Espainiako Geografia Elkarteak Eñaut Izagirre partaide duen *Incognita Patagonia* proiektua saritu zuen. Ibai Rico gasteiztarrarekin eta Evan Miles estatubatuararekin batera Txileko Patagoniara, Hoste uhartera, egin zuten espedizioa, esploratu gabeko lur eremuetara, eta 2017ko Bidaia Onenaren Saria eman zien Espainiako Geografia Elkarteak.



Azala erre liburua aurkeztu zuen Danele Sarriguartek. Sare sozialen sa-soian, ikuskizunaren gizarte post-industrialean, bi artista, Miren eta Jon, eta artea ulertzeko modu bi jarri zituen talkan liburuan.



2017ko triatletarik eta duatletarik onenak saritu zituen Euskadiko Triatloi Federazioak eta Iñaki Konde izendatu zuten duatletarik onena, 60 eta 70 urte artekoetan. Era berean, bera izendatu zuten hirugarren triatloilari onena ere.



ESARRI AUTOAK ZERBITZUA
 MARKA GUZTIAK
943 741 480
 Aitor: 606 975 730
 Anton: 680 356 573
 Faxe: 943 031 576 Olaso, 17 - Elgoibar

HYUNDAI
 MAZDA

DOÑA MERCEDES
 San Frantzisko, 21
 20870 Elgoibar
 Tel.: 943 742 652
 943 742 137
Jai zoriontsuak!

EMPAÑADAS PIZZAS
 DONA MERCEDES
 OBRADOREA

■ Hasier Etxeberria kazetari eta idazle elgoibartarra hil eta urtebetera, *Biba Hasier!* ekimena antolatu zuten Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak martxoaren 21ean, Etxepekin babestuta. Hasier bera eta haren lana eta pentsamendua hobeto ezagutzeko helburuarekin antolatu zuten zikloa, eta hiru adar izan zituen. *Begia zulotik* erakusketa, *Biba Hasier!* ekitaldia eta Hasierrren etxekekin eta lagunekin ondutako gehigarria.



■ Gipuzkoako Bazkondeak aberastasunaren eta enpleguaren sortzaile gisa enpresek egiten duten lana saritzen du urtero, eta aurten, DanobatGroupi eman diote sari nagusia.



■ Espainiako Mushing Txapelketa jokatu zuten martxoaren 3an eta 4an Baqueira Bereten eta Imanol Cid elgoibartarrak bigarren egin zuten bi txakurreko lera modalitatean. *Atila* eta *Darko* izeneko txakurrekin lehiatu zen Cid.

OLAIA MARTINEZ
ESTETIKA ZENTROA

Gabon hauetan oparitu edergintza, etorri Olaia Martinez estetikara eta azken tratamenduen berri emango dizugu.

29etik aurrera

Zure orbanei amaiera emateko tratamendu berritzailea

ACCURETT®

Trenbide kalea 21, behe, ezk. - Elgoibar - 943 242 805



■ Kros Antolatzaileen Espainiako Elkarteak (ANOC) Elgoibarren egin zuen aurten goa, Mugertza krosaren 75. urteurrenarekin bat eginez. Ekitaldian, 2017-2018 denboraldian nabarmendu ziren atleta eta erakundeak saritu zituzten eta horietako bat izan zen Mugertza krosa. Sari berezia jaso zuen.

■ Apirilaren 7an utzi zuten Santa Klarako komentua moja klaratarrek. Aurrez, baina, agur ekitaldia antolatu zuen Elgoibarko kristau elkarteak. 1533ko irailaren 8an Oñatiko Bidaurreta monastegitik etorri ziren mojek sortu zuten klaratarren lehen komunitatea Elgoibarren.



■ 57 urteko gizonetako bat zauritu zen Urruzuno bailarako Andone Enean izandako sutean. Gas neurgailuetan izandako ezlandak eragin zuen sua.



NAVA
INPRIMATEGIA

Santa Ana, 44 - ☒ 208

Telf. eta Faxe: 943 744 451

E-mail: nava@euskalnet.net

20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Gabon zoriontsuak!



BM Termoplastiko eta Konposituen
Mekanizazio Lanak
Metal Ez-Ferrikoak

bronymec

@bronymecSA



AGURTZANE
c.b.

Fotodepilazioa egiten dugu

GABON ZORIONTSUAK!

Santa Ana, 18
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 864

ileanaindegia



■ Elgoibarko gazte kuadrillak elkartu zituen Anbolo Egunak apirilaren 21ean. Estreinako aldiz antolatu zuten egun hau gazteek eta askotariko ekintzak egin zituzten.



■ Bartłomiej Przedwojewski poloniarra eta Vanessa Pelaez andoaindarrak irabazi zuten Kilimon Trail lasterketa. Poloniarra, gainera, bi minutuan ondu zuen aurreko urtean Julen Laruzeak ezarritako errekorra eta egun gutxitara hirugarren egin zuen Zegama-Aizkorri mendi maratoi entzutetsuan. Bixikeria gisa esan, Kilimon Traileko galtzerdiak jantzita helmugaratu zela, gainera.



■ Gipuzkoako Futbol Federazioak 100 urte bete zituen apirilean eta kirolariak prestatzen egindako lana aitortu zion Aldundiak. Lau taldek sortu zuten federazioa. Realak, Beasainek, Real Unioek eta C.D. Elgoibarrek. Hori dela-eta, aitortza berezia jaso zuten lau talde horietako presidentek.



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203


Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
 Erietxe zentruetan zerbitzuak.



■ Euskal zentro teknologikoak eta DanobatGroup industria taldeak Digital Grinding Innovation Huba (DGIH) zentroa inauguratu zuten DanobatGroup-en Elgoibarko egoitzan. Digitalizazioaren eta industriako artezketaren alorreko soluzio berritzaileak ikertzeko eta garatzeko zentro berria da, eta teknologia aurreratuak enpresei transferitzen laguntzea eta industriaren lehiakortasuna indartzea du helburu. Inaugurazio ekitaldian izan zen Iñigo Urkullu Jaurlaritzako lehendakaria.

■ Sedentarismoari aurre egiteko Elgoibar Sasoian orientazio zerbitzua jarri zuten martxan Elgoibarko Udalak eta Udal Kirol Patronatuak, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundia-riaren laguntzarekin. Adin guztietako elgoibartarrentzako zerbitzua da, eta Jarduera Fisikoan eta Kirol Zientzietan lizentziatua den Javier Fernandez elgoibartarrak eskaintzen du.



■ Sanloko Tecnifuelle taldeak laugarren postua eskuratu zuten maiatzaren 2tik 6ra Olaizaga kiroldegian jokatu zuten jubenil mailako Espainiako Eskubaloitxo Txapelketan. Elgoibartarrek, finalerdietako kanporaketa galdu eta gero, Balonmano Porriño taldearen aurka jokatu zuten brontzezko domina jokoan zegoen partida. Galiziarrek 19-27 irabazi zuten. Tecnifuelle finalerdi kanporaketa irabazi zuten txapelketa, finalean Madrilgo BM Sanse taldeari luzapenean irabazita.

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

leku eder
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Eparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

fisio&más
Fisioterapia aurreratu eta
Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 963 038
www.fisio-mas.com

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

FUB Fernando Urizar Barandiaran
RPS: 32/17
Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bailen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)
fuzuriz1@yahoo.com
615 715 404

aldaz
hortz klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA
DIETIKAN DIPLOMATUA
Tel. 943 166 030
Mag. 677 551 850



Segi dezagun elkarrekin gure historia idazten

■ BARRENEK 25 urte bete ditu aurten eta maiatzaren 25ean zuek denekin batera ospatu genuen Kalegoen plazan. BARRENE azal guztiak atera genituen plazara, eta, jakina, azalekin batera, beste horrenbeste protagonista ere bildu genituen. Irudi ikusgarria osatu genuen elkarrekin, eta go-goangarria egin genuen maiatzaren 25a. Sekula ez besteko babesa sentitu genuen, eta ez diogu gezurrik beste 25 urte betetzeko bultzada jaso genuela diogunear.

■ Arrakastatsua izan zen antzerkia herritarrengana gerturatzeko Taupadak antolatutako *Zelukristaloideak* jardunaldia. Hiru film ezagunetako sekuentziak antzeztu zituzten herriko hiru erakusleiotan: Agirre sasterria izandakoan, Anton altzari dendakoan eta Gabi taberna ondoko lokalean. 40. urtemugarren harira antolatu zuen Taupadak ekimen hori.





1.800 €

BANATUKO DITUGU
10 EROSKETA TXEKETAN

GABON ZORIONTSUAK !

- Elgoibarren -
bizi, erosi
hobriak irabazi

TXANKAKUA
ELGOIBARRKO MERKATARIK



ESKURATU EZAZU GURE DENDETAN
ELGOIBARRKO MERKATARITZA
SUSTATZEKO IPUINA.





■ Adeg, Gipuzkoako Enpresarien Patronalak, Eduardo Junkera izendatu zuen presidente. Mendaron dagoen Egile Corporation XXL Oinarri Teknologikoko Enpresa Korporazioaren sortzailea eta presidentea da Junkera, bai eta Elkargiko eta Hegan klusterreko presidenteordea ere.



■ Mendaron, jolaserako eta kirolerako gune berri bat zabaldu zuten ekainean. Gune honek 3.400 metro koadro ditu eta bi zatitan banatuta dago. Lehenengoa kirolerako gunea da, eta estalitako padel pista, miniskatea, erabilera anitzeko kantxa, gimnasiarako hainbat aparatu (padel pistako aterpean) eta automatikoki garbitzen den komuna daude bertan. Bigarrena, berriz, aisialdirako gunea da. Han, udan jolasteko ur txorrotak, bankoak eta mahaiak, eta iturria daude. Proiektu honen aurrekontua 627.000 eurokoa izan da. Mendaroko Udalak Eusko Jaurlaritzaren 320.000 euroko Leader diru-laguntza jaso zuen.



■ Ekainaren 8an, rock doinuek hartu zituzten Maalako parkeko txoko guztiak. Elgoibarko Udal Musika Bandarekin eta Silvia Hernandez, Patxi Zabaleta, Juan Carlos Martin eta Andoni Mujika musikariekin hiru lagun, hiru musikari handi, aritu ziren kantari: Gatibu taldeko Alex Sardui, eta Jon Gurrutxaga eta Jon Zabala elgoibartarrak. Herritar ugari batu ziren jaialdira eta sekulako giroa sortu zen. Kontzertu bukaeran hiru abeslariak *Lau Teilatu* abestia kantatu zuten elkarrekin.



■ Ekainaren 16an Sanmigeldarren Eguna ospatuko zuten Aiastian. Aurtentzen, Gregorio Larrañaga *Mañukorta* bertsolariari omenaldia egin zioten, urte hauetan Aiastian izan duen parte-hartzea eskertzeko. Bere bizitzako ibilbidearen berri eman zion BARRENI Mañukortak San Migel-Aiastiako elkartearen, auzotarrek omenaldia egin aurretik eta BARRENEKO orrietara eraman genuen elkarriketan jasotakoa.



www.muruamendiaraz.com
1935etik gozogintzan

Gabon
zoriontsuak!



■ Gure Esku Dagok Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotu zituen giza kate batekin, ekainaren 10ean, erabakitze eskubidea aldarrikatzeko. Mobilizazio jendetsu horretan, guztira, 175.000 herritar baino gehiagok hartu zuten parte eta 1.700 elgoibartar eta mendaroar kate luze hortako katebegi izan ziren. Elkarrekin, eskuz eta zapiz bat eginez, bizikidetzaren, burujabetzaren eta erabakiaren aro berri-rako pausoa irudikatu zuten herritarrek jai giroan.

■ Urrezko Pioleta irabazteko hautagaien artean aukeratu zuten Aritza Monasterio mendigoizalea. Mendiko ekintza handi eta gogogarrienak saritzen ditu Piolet d'Or edo Urrezko Pioleta izeneko sari prestigiotsuak. 2018koa irabazteko 58 mendi jarduera aukeratu zituzten hautagaien zerrenda osatzeko. Horietako bat zen Perun bizi den Aritza Monasterio elgoibartarrak eta Alik Berg kanadarrak Peruko Andeetako Hualcan mendian (6.122 m.) zabaldu zuten 1.000 metroko bidea. *Nadie sabe nada* (ED1, M6, 85°, VI) izena jarri zioten inork igo gabeko hormatzarrean zabaldutako bide berriari. (Ekainaren amaieran jakinaraziko zuten Urrezko Pioletaren irabazlea zein den Polonian, Ladek Mountain jaialdiaren baitan).



■ Haundi mailaz igo zen Durangoko Kulturalak Bigarren B Mailara igotzea lortu eta gero. Durangoko Tabira futbol zelaian ospatu zuten Haundiko hainbat jokalarik, C.D. Elgoibarreko zuzendaritzako kideek eta zaleek Ohorezko Erregional Mailarako igoera. Bigarren B Mailara igotzeko azken kanporaketako itzulerako partida jokatu zuten durangarrek Kanaria Handiko San Fernandoren aurka, eta 2-0 irabazi zuten (0-1 irabazi zuten itzulerakoan). Euskal talde bat Bigarren B Mailara igo izanak 'domino efektu' modukoa eragin zuen beheragoko mailetan, eta Haundi izan zen onuradunetako bat, Ordizia taldearekin batera.






San Antolin 3

• 20870 Elgoibar

• Tel.943 740 600

• Faxa 943 743 472

• etxetar@etxe-tar.com

• www.etxe-tar.com



■ Emakumeen arrauneko gorengo mailan lehiatu zen udan Leire Garate elgoibartarra, Orioko traineruarekin. Orio, Hondarribia, Arraun Lagunak eta San Juan aritu ziren nor baino nor 2018ko Euskotren Liga eraberrituan. Hamabi estropadatan lehiatu eta gero, San Juan Arraun Elkarteko emakumezkoen traineruak irabazi zuen liga, nagusitasun osoz.

■ Esloveniako Koper herrian jokatu zen Eurofest nazioarteko eskubaloitxapelketan parte hartu zuen Sanloko Hotel Txarriduna infantil mutilen taldeak, uztailaren 3tik 8ra bitartean. Hemeretzi herrialdetako 3.000 jokalaribaino gehiagok hartu zuten parte txapelketa honetan. Hotel Txarriduna taldeak zazpi partida jokatu zituen guztira, Frantzia, Eslovenia, Israel (selekzioa), Kroazia eta Txekiako taldeen aurka, eta 18. postuan sailkatu zen bere mailan.



■ BARREN aldizkariako kideok piztugenuen Santa Ana jaiei hasiera eman zientxupina Mendaroko udaletxeko balkoian. Aldizkariak 25 urte bete dituelako eskaini zigun ohorea Mendaroko Udalak.

*Medikuntza tratamenduak gorputz eta aurpegirako
*Mikropigmentazioa
*Barizak kentzeko tratamenduak eta gehiago...
*Estetika *Solarium-a

Idama
Ileapaindegia

Antonio arrillaga 8-8
(sarrera Santa Ana kaletik)

Tel: 943 74 40 26

Gabon Zoriontsuak!

AHOLKULARITZA

BIKAIN

ASESORIA

Tel.: 943 744 557
Faxa: 943 740 408
e-posta: bikain@bikainasesoria.com

Gabon zoriontsuak!!

- Ⓢ Zerga-aholkularitza
- Ⓢ Lan-aholkularitza
- Ⓢ Kontabilitate aholkularitza

Antonio Arrillaga, 4 behea
20780 ELGOIBAR

■ Peñen igoera egin zuten ehunka umek estreinakoz San Fermin Txiki Egunean. Iruñeko sanferminetako txupinazoarekin bat eginez, San Fermin Txiki Eguna ospatu zuten uz-tailaren 7an Elgoibarko eta Mendaroko udako aisialdi eskaintzan parte hartu zuten umek. Elgoibarren, beste urteetako entzierroa ordezkatzuz, peñen igoera egin zuten ehunka umek, pankarta eta oihalekin. Maalatik Kalegoen plazara arteko bidea egin zuten, erraldoi eta buruhandiek lagunduta.



■ Marea Urdina itsas zeharkaldiaren jarraipen ontziko patroilanak egin zituen Roberto Andonegi elgoibartarrak. Autismoa duten pertsonen inguruan sentsibilizatzeko asmoz egin zuten itsas zeharkaldiak Gipuzkoako kostalde osoa zeharkatu zuten, 64 kilometro, hasi Saturraranen (Mutriku) eta Hondarribira artekoa, eta igerilariei jarraika joan zen ontzia gidatu zuten Andonegik. Bizitako esperientzia oso aberasgarria izan zela aitortu zion BARRENI.



■ Viento Sur tabernak irabazi zuen Elgoibarko X. Pintxo Lehiaketa, eta herritarren pintxo gustukoena Asgikoa izan zen. Iaz moduan, 26 tabernak parte hartu dute aurtengo lehiaketan. Herritarren parte-hartzea "nabarmena" izan zela adierazi zuten antolatzaileek, eta guztira, 6.301 boto-txartel zenbatu zituztela (2017an 6.189 bototxartel zenbatu zituzten).

Softlan S.L.

Albitxuri industriagunea, 3i
20870 Elgoibar - Gipuzkoa
943 748 105

www.softlan.biz - www.softlan.eus
info@softlan.biz

*Jai zoriontsuak
eta 2019 urte emankorra!*

Enpresetarako Software-an espezializatuak



ERPa, Kudeaketa, Fabrikazioa, CRMa,
Fakturatzea, Kontabilitatea,
Lanpartek jasotzeko Programa,
Neurrira egindako Programak, Hardware,
Segurtasun informatikoa.

www.softlan.biz - www.softlan.eus

Juan Mugertza Nazioarteko Kroseko antolatzaileek eta Morkaiko Mendizale Elkarteko kideek elkarrekin piztu zuten sanbartolomeei hasiera eman zien txupina. 75 urte bete dituzte aurten batak zein bestek.



INMOBILIARIA
AGENTZIA

Edurne Gabilondo Loyola

Zuzenbidean litzentziatua
Higiezin sektoreko peritu ofiziala

www.inmobiliariagabilondo.es

San Frantzisko 51, behea - Elgoibar

943 744 467

Gabon zoriontsuak!

Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

ITURGINTZA

**PAGOAGA S.A.**
BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
lendar@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com
BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com
ELGOIBAR

**FONTANERÍA Ibámar**
ITURGINTZA
San Roke, 10-A, behe B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

**ONGI** Iturgintza
Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

TELLABIDE
ITURGINTZA

Azpilgoeta, 7 behe - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzalellabide@hotmail.com

**SANTANA**
Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.
Urazandi kalea 17, behe
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

AROTEGIAK

**ASIMA**
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar
687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

Ulazia
AROTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albixuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547


**BIENA S.L.**
AROTEGIA
Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus


**I.M.A.R.**
AROTEGIA
Olaso industriagunea, 17 behe
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com


**iraolagoitia**
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak
Kurutx-gain Industriagunea, 9
20850 Mendaro
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

ELEKTRIZITATEA

CARRANZA,
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga, 10, 6.B
Elgoibar
karranza@gmail.com
Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.
Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR
Andres: 630 957 345
Pedro Migel Uruzuno, 14 behe
20870 ELGOIBAR
Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

IGELTSERITZA

A. Garate
Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behe - 2. zkia
Elgoibar
610 226 651
E. ARANDIA
ERREFORMA ETA LEIHOAK
Urazandi, 22 behe - Elgoibar
Tel.: 605 705 204
Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurarekin ere
lan egiten dugu.

LEIHOAK

**LODOSO
LEIHOAK**
SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA

**BLOK**
dekorazioa
Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

Hércules

658 710 898

Gremioen
gida

■ Juan Cruz Gabilondo taldekide ohia omendu zuen Sevillako Betis futbol taldeak. Klub andaluziarreko kideen bisita jaso zuen Gabilondok Elgoibarren, bere etxean. 1954an Betis taldea Ligako Bigarren Mailara igo zuen hamaikakoan egon zelako eskerrak ematera etorri ziren.



■ Nazioarteko Danobat Irekia antolatu zuen Zubi-Ondo xake taldeak estreinakoz, Danobaten, Udalaren eta Kirol Patronatuaren laguntzarekin. Xakelari profesionalak hartu zuten parte, besteak beste, Gabriel Del Rio Espainiako txapeladuna. 66 xakelarik hartu zuten parte, eta Jaime Santosek irabazi zuen.



■ Frankistek hildako elgoibartarrak omendu zituzten irailaren 22an, Olasoko kolunbarioan. Memoria historikoaren aldeko Elgoibar 1936 taldeak antolatu zuen ekitaldia.



■ Joseba Etxeberria entrenatzaile kargutik kendu zuen Bigarren Mailan diharduen Tenerife taldeak. Ligako lehen bost jardunaldietan ez zuen taldeak partida bat bera ere irabazi, eta Kopa txapelketatik ere kanporatu zituzten.

Jasone
Zerbitzu Grafikoak
Inprimategia

**Diseinu grafikoa
Inprimaketa digitala**

San Inazio, 1 helbidean dugun lokala itxi egingo dugu, baina zerbitzua ematen jarraituko dugu honako telefono zenbaki hauetan:

943 742 567 / 626 591 658

jasone@jasonesg.com
www.jasonesg.com

**GABON ZORIONTSUAK
ETA URTE BERRI
ON!!**
Leire Urio Ondarra

elgoibar ikastola
zuentzat eta zuekin
eguneroko jardunean
etorkizuna eraiten

Fecha miguel arcaño, karp - Ormaiztegui, 7 - Posta 53 - 20670 Elgoibar - Tel: 943 744 441 - elgoibar@elgoibarkutxa.eus

■ Jon Gurrutzagak *Kateak* izeneko disko laburra kaleratu zuen. Bi disko luze argitaratu ostean, formatu laburraren alde egin du oraingoan, eta lau abestirekin osatu du disko berria. Hainbat kontzertu ematen dihardu elgoibartarrak, eta Elgoibarren ere eskaini zuen emanaldia azaroaren 16an.



Arg.: Jairo Berbel



■ Pyrenees Stage Run bikotekako mendi lasterketa irabazi zuen Ainhoa Lendinezek, Igone Camposekin batera. Zazpi etapatan 240 kilometro egin eta 15.000 metroko desnibel positiboa gainditu behar izan zituzten. 44 ordu, 53 minutu eta 23 segundo behar izan zituzten.



■ Errosario kaleko 4. zenbakiko etxe batek su hartu zuen. Arrisku oneak bizi izan ziren, Errosario kaleko etxeak egurrezkoak direlako eta bata bestearengandik oso hurbil daudelako. 11 familia euren etxeetatik kanpo geratu ziren. Kalteak neurtu ostean, Errosario kaleko 4 eta 6 zenbakiak bota egin zituzten.

ETXEPE

Lan bereziak
Grandes mecanizados

Mekanizatu handietarako adituak

Tel.: 943 741 297 / 943 740 664

Faxa: 943 744 321

www.etxepe.com

etxepe@etxepe.com





■ Julen Zabaleta elgoibartarrari eman zioten Gure Baloioak Saria. Bere legatu historiko-artistiko garrantzitsuagatik aukeratu zuten Zabaleta. Ume-umetatik izan du marrazketarako zaletasuna eta 97 urterekin marrazten jarraitzen du. Elgoibar, Eibar eta, oro har, Debabarreneko eraikin eta leku esanguratsuenak errealismo eta zehaztasun handiz margotuak ditu. Urriaren 25ean jaso zuen saria.



■ Aitor Etxeberria mendarorak diseinatutako tamaina handiko eskultura bat jarri zuten Lanzaroten, Nautilus artista-egoitzaren kanpoaldean. Haize-errotak bat dago egoitzaren ondoan, eta sortutako eskulturak errotekin zerikusia duenez, leku egokia iruditu zitzaion.



■ Euskara ala ez zikloaren 10. urteurrenean Euskal Herriko hamaika bazterretatik etorritako euskaltzale eta kultura zaleek bat egin zuten IMHko areto nagusian. 120 bat lagun batu ziren guztira. Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatu zuten zikloa. Ekitaldiko material guztia www.euskaraalaezkaara.eus webgunean jaso dute arduradunek.



■ Maite Maiorak irabazi zuen Hiru Handiak proba eta Mayi Mujika izan zen hirugarrena. Maiorak 12 ordu, 48 minutu eta 37 segunduan egin zituen 101,6 kilometroak. Mayi Mujika bigarren postua eskuratzetik gertu ibili zen, baina azkenean, hirugarren egin zuen, irabazlearengandik 15 minutura.

m mendaro ikastola

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

Mendaro ikastolako TXOKOLOREN partez, zorionak eta urte berri on!

karkizano

Gabon zoriontsuak!

San Frantzisko, 14
Tel.: 943 740 549
Elgoibar

Jon Aranoa
Guillermo Torres


Elgoibar Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenerdik ostiralarera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Inopaindegi zerbitzua daukagu. Dena ordua hartzeko.



■ Pediatria saileko kontsultategiko sabaia behera etorri zen Elgoibarko ambulatorioan. Urriaren 29ko goizean gertatu zen ezbehera, baina zorionez kalte materialak bakarrik izan ziren, eta ez zuen inork minik hartu.



■ Hiart Compañonek hezurmuin eskaera egin zuen. 41 urte ditu eta leuzemia gaixotasuna diagnostikatu zioten urrian. Berearekin bateragarria den hezurmuina behar du. Eskaera horrek erantzun zabala izan du, eta hezurmuina emateko prest agertu diren bizilagunei erantzuteko zerbitzu berezia jarri dute martxan Elgoibarko odol emaitelen bulegoan.



■ Debabarreneko 75.000 laguni zerbitzua eskainiko dien Eibarko Ospitalea inaureratu zuten. Kronikoentzako ospitalea izango da, baina inguruko osasun zerbitzuak ere bertan bilduko dira. Iñigo Urkullu lehendakaria, Jon Darpon Osasun Sailburua eta Debabarreneko alkateak batu ziren, besteak beste, inaugurazio ekitaldian.



■ Kintoen eguna antolatu zuten estreinakoz urriaren 27rako, eta arrakasta handia izan zuen. 23 kinto talde bildu ziren bazkaritarako, mila bat lagun guztira. Jai giroa nagusi izan zen kalean.



®

PNEUMAX
AUTOMATIZAZIO NEUMATIKAKO OSAGAIAK



MEMBRO DE
aiftop
Distribuidora y
servicio

AENOR
R
Registros
Registrado
N.º. 1446/2000

CREATIVO
LoNet
DISEÑO Y
COMERCIALIZACIÓN

Olaso kalea, 15 eraikina, Pab. 52 - 53 - 54
Elgoibar (GIPUZKOA) - 943 74 41 44 - Web: www.pneumax.es

Gabon
zoriontsuak!



■ Miguel Angel Montes Cometel enpresako nagusiari eman zioten Korta Sarietako bat. Montesek 1987an sortu zuen Cometel. Espainiako eta Portugalgo lider bihurtu zuen enpresa, eta 2007an Ameriketara ere zabaldu zuen, Mexikora, hain zuzen ere. Cometel erreferente bihurtu da bere sektorean.

■ Morkaikok 75 urte bete ditu aurtan, eta azaroan egin zituzten urteurrena ospatzeko ekitaldiak. Bestek beste, argazki erakusketa eta elkartearen ibilbidea laburbiltzeko dokumentala aurkeztu zituzten.



■ Elgoibar Kirolaren Europako Hiri izendatu zuten, Kirolaren Hiriburu eta Hirien Elkartearen Federazioak (ACES). Elgoibarko kirol azpiegituren eskaintza eta kalitatea nabarmendu zituzten, kirol ekitaldiak antolatzeko gaitasunarekin batera.



■ Javier Elorza historialariak *Villa-mayor de Markina, Elgoibar deitua* izeneko liburua kaleratu zuen. Elgoibarko eta Mendaroko Erdi Aroko historia bildu zuen liburuan.



SEGUR-arno
ASEGURUAK
PEDRO BASURCO - AMAIA PAGOAGA

Gabon zoriontsuak!

Deba kalea 2, behea - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Telf.: 943 74 80 13 - Fax: 943 74 81 35
segurarno@segurarno.com - www.segurarno.com

HAIR'S
ILEA PAINDEGIA
San Bartolome, 6 behea
Tel.: 943 53 12 79

ASTEARTEETAN
JUBILATUEN
EGUNA:
- Orraztu 9€
- Garbitu, moztu eta orraztu 18€

Abenduaren 24an eta 31n goizez zabalik!



■ Indarkeria matxista salatzeke hainbat ekitaldi egin zituzten azaroaren 25ean, Elgoibarren eta Mendaron. Bi herrietan indarkeria matxistak hildako emakumeak gogoratu zituzten.



■ Euskaraldia hasi zen azaroaren 23an; 11 egun euskaraz bizitzeko ekimena. Elgoibarren 1.547 lagunek hartu zuten parte: 1071 Ahobizik eta 476 Belarriprestek. Mendaron, aldiz, 310 lagunek hartu zuten parte: 243 Ahobizi izan ziren eta 67 Belarriprest.



■ Alkortako Igoera antolatzeari utzi zion Mendaroko ezker abertzaleak, urtetik urtera parte-hartzeak behera egin duelako. Kirola egin ez euskal presoen eskubideen aldeko aldarrikapena lau haizetara zabaltzeko helburuarekin hasi ziren proba antolatzen, eta guztira, 13 edizio izan ditu kirol proba honek.



■ Nerea Arriola biolin jole mendaroarrak lehenengo saria eskuratu zuen Bruselan jokatu zen Triomphe de l'art nazioarteko musika lehiaketan, 15 eta 20 urte bitartekoan sailean. Mundu osoko biolin jole onenekin lehiatu zen mendaroarra.

Urte Berri on!

Abenduko azken egunetan dator urte amaiera etxean elkartzen gera denok urte berria ospatzera.


Momentu ilunak ahaztu ditzagun eta jarraitu aurrera gure ametsak bete daitezen urte berriaz batera.

Doinua: Badira hiru aste
Egilea: Arnaia Astigarraga (Batz. 2B)

2018 Elgoibar BHI



María Pérez Goikoetxea (Batz. 1B)



■ Koldo Lizarralde C.D. Elgoibarren mendeurrenari buruzko liburua aurkeztu zuen abenduaren 11n. 1917an sortu zen kluba, eta iaz 100 urte bete zituen. Beste hainbat ekintzen artean, 100 urteko historia jasotzen duen liburua argitaratu dute.



■ Uzuri optikak 40 urte bete ditu gaur. 1978an ireki zuen Uzuri Larrañagak Uzuri optika, eta 2010etik haren alaba Amaia Amasorrainek darama negozioa. Ospakizun berezia egin dute gaur langileekin eta haien senide eta lagunekin, eta bezeroekin datorren urtean ospatuko dute urteurrena.



■ Felix Sanchez Arrazolak Mugertza Krosean egindako argazkia izendatu dute urteko atletismoko argazkirik onena. Aurtengo kroseko irabazleari, Selemon Barega etiopiarrari Mintxetako helmugan ateratako argazkia izan da onena IAAF Photograph of the year award argazki lehiaketan.



■ Kokoteraino taldeak kontzertu berezia eskaini zuen abenduaren 14an, maketa atera zutenetik 25 urte bete direlako aurretik. 1993an atera zuten maketa, eta 96an abesti berezi bat grabatu zuten Kilometroak jaialdirako. Ehun Kilo Elgoibarko taldearekin batera eskaini zuten kontzertua Kultur Etxeko sotoan.



■ Herriko merkataritza sustatzeko liburua egin dute Jasone Osoro eta Mikel Cornejo elgoibartarrek, Txankakua merkataritza elkartearekin elkarlanean. Jasone Osorok idatzi du liburua eta Mikel Cornejok egin ditu ilustrazioak. Metafora baten bidez, herriko dendetan erosteak dituen onurak islatu dituzte liburuan.

2019

"Gau hartan ametsak
zain zeuden, ilara batean.
Ametsak ameslari bila,
ametsuak izan nahian".

Eduardo Galeano, Helenaren ametsak

ehbildu



SURYA
BELAR-DENDA

943 742 534 630 878 054

surya-belardenda@hotmail.com
San Frantzisko, 23 - Elgoibar



FONTANERÍA

Ibámar
ITURGINTZA

Floren Cid: 647 463 436
E-posta: ibamariturgintza@gmail.com

Gabon zoriontsuak!

- BEROGAILUA
- GASA
- GASOLA
- AIRE EGONTEA
- ALTZARIAK
- MANPARAK
- OSAGIAK
- GREMIOEN KORDINAZIOA
- EKREFORMAK

Ilargindia
Jurdes

Pedro Migel Urruzuno kalea, 10

943 256 105

NUBEA PRODUKTU
ORGANIKOEN TRATAMENDUAK:

- ★ Detozinantea.
- ★ Ilea ez erortzekoa.
- ★ Sahiari aurre egitekoa.
- ★ Ilea koipetsuaren aurkakoa.
- ★ Buru-azal sensibleentzako.

**TRATAMENDUA
+
GARBIKETA
+
ORRAZKERA**

2019 ezin hobe hasteko!


Gabon zoriontsuak!



IHARDUN
MAQUINAS ESPECIALES, S.L.

Makina Bereziak

Albitxuri, 1 · 3. Pabilioia, K-L
Tel.: 943 744 466 · Faxe: 943 53 14 74
ihardun@ihardun.net · www.ihardun.net



“Hortzetako mina sentitu aurretik joan behar da dentistarengana”



▶ ANE ARAKISTAIN DENTISTA

Ane Arakistainek (Elgoibar, 1995) Odontologia ikasketak egin ditu Leioako fakultatean, eta bere promozio espediente onenaren saria jaso du, Proclinic Sarien barruan. Espainiako Odontologia fakultate guztietako ikasleen espedienteak hartzen ditu kontuan sari honek, eta 2013-2018 urteetan ikasle elgoibartarra izan da emaitzarik onenak izan dituen. Madrilgo Complutense Unibertsitatean jaso zuen saria. Horrez gain, Odontologiari buruzko kongresu batean parte hartu berri du Mallorcan, eta han ere, bere lana saritu dute. Ekainean amaitu zituen ikasketak, eta orain lanean dabil, Mendaroko hortz klinikan.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ 2013-2018 epealdiko espediente onena izan da zurea. Nola izan zenuen sariaren berri?

Sorpresa handia izan zen; ez nuen espero. Ekainean amaitu nituen ikasketak, eta nik nere notak bakarrik ezagutzen nituen; ez neukan beste ikasleen emaitzen berri. Ikasketak amaitu, eta lana bilatzeari ekin nion, batera eta bestera curriculuma bidaliz. Irailean hasi nintzen lanean Mendaroko Nora Hortz Klinikian. Lanean hasi eta berehala jaso nuen sariaren berri ematen zuen mezua. Oso ondo gogoratzen dut: bazkaltzen nengoela jaso nuen Ma-

drilgo Complutense Unibertsitateetik emaila, esanez Leioako Unibertsitatean nire promozioko espediente akademikorik onena neukala eta sari bat emango zidatela. Espainiako 21 odontologia fakultatek hartzen dute parte, eta bakoitzetik ikasle bat saritzen dute. Ezin nuen sinetsi! Sari banaketa Madrilen izango zela jartzen zuen, eta nire presentzia konfirmatzeko eskatzen zidaten. Horrez gain, etxetik zenbat lagun joango ginen ere galdetzen zidaten.

◆ Nola hartu zuten etxekoak?

Hasieran ez nien ezer esan. Bikoteki-

deari kontaktu nion momentuan bertan, eta sari banaketa ekitaldia biok elkarrekin asteburu bat Madrilen pasatzeko aitzakia ona izan zitekeela pentsatu genuen. Bazkalostean lanera itzuli nintzenean Norari [Nora Bastista, Hortz klinikako nagusia] kontaktu nion, eta berak galdetu zidan ia amari esan nion. Ezetz esan nion, ez nintzela amarekin egon eta gero kontaktuko niola. Telefonoa hartu eta berehala deitzeko esan zidan. Amak izugarritzko poza hartu zuen, eta nik ezer esan aurretik berak esan zidan sari banaketa ekitaldian egon nahi zuela. Amarekin telefonoa es-

kegi eta senide guztiak hasi zitzaizkidan zorionak ematen! Amak berehala zabaldu zuen berria! Azkenean, amama ere etorri zen Madrilera! Ikasketa amaierako graduazio ekitaldira ikasleko bi senide bakarrik eramateko aukera izan genuen eta familiako asko geratu ziren etorri ezinda. Oraingoan ez zegoen mugarik eta familia osoa joan ginen.

◆ **Zenbat ordu eskaintzen dizkiozu ikas-teari?**

Ez pentsa gehiegi izaten direnik. Kalerira irten eta lagunekin egotea gustatzen zait, eta parrandak egitea ere bai. Egia da azterketa garaian orduak sartzen ditudala ikasten, baina bestela ez ditut planak baztertzen. Azken batean, ikasketetan ondo moldatzeko norbera ondo egon behar da, eta norbera ondo egoteko, ezinbestekoa da kalera irten eta lagunekin gozatzea. Ikasten ari zarela oso inportantea da atsedena hartzea, moduren batean edo bestean, despejatzeko.

◆ **Nolatan aukeratu zenuen Odontologia ikastea?**

Betidanik izan dut argi dentista izan nahi nuela. Nota altua eskatzen zuten unibertsitaterako, eta badaezpada, Odontologiako Fakultate publiko guztietan egin nuen eskaera. Leioan onartu ninduten eta ez nuen dudarik izan. Umetatik joan izan naiz gustura dentistarengana, inoiz ez dit beldurrik eman. Gerta zitekeen ikasketak egiten hasi eta ez gustatzea, baina ez da nire kasua izan. Oso gustura aritu naiz unibertsitatean, eta gainera, han egon naiz bizitzeko eta beste kuadrillatxo bat egin dut.

◆ **Ikasketak bukatu eta berehala hasi zara lanean. Odontologia alorrean zer moduz dago lan mundua?**

Promozioko ikasle guztiak lanean gaude. Gaur egungo gazteen egoera zein den ikusita harriztekoa da, baina badirudi sektore honetan badagoela lana. Nik laneko hiru edo lau elkarrizketa egin nituen, eta gustukoena aukeratzeko aukera izan nuen. Norarekin elkarrizketa egin nuenean argi ikusi nuen hura zela nire lekua. Bere lan egiteko modua, izaera, etika, lantaldea... asko

“Umetatik joan izan naiz gustura dentistarengana, inoiz ez dit beldurrik eman”

gustatu zitzaidan dena. Gauza asko ikasten ari naiz, eta oso ondo portatzen dira denak nirekin. Denak neskak gara, eta sekulako giroa daukagu.

◆ **Nola gogoratzen duzu egin zenuen lehenengo enpatea?**

Praktikak unibertsitatean bertan egiten genituen. Bigarren mailatik aurrera, jendearen ahoan ibiltzen gara. Unibertsitateak dentista zerbitzua eskaintzen du ohikoa baino merkeago, eta jendea hara joaten da. Ez dakit zenbat denbora eman nuen nire lehenengo enpatea egiten! Errespetu handia ematen du pertsonekin lan egiteak. Lan askotan makina edo ordenagailu bati egiten diozu kalte akats bat egiterakoan, baina nik pertsona bati egingo diot, eta horrek errespetu handia ematen dit. Kontu handiz ibili behar da. Hasieran beldurra ematen zidan. Anestesia lehenengo aldiz ikasleonean artean jarri genuen, ikasle batek besteari. Zuk bada-kizu zure aurrean dagoena zure ikaskidea dela, ez daukala esperientziarik, urduri dagoela eta anestesia jarri behar dizula ahoan. Egoera ez da erraza, baina azkenean urduriago egoten da anestesia jarri behar duena, hartu behar duena baino. Ni oso lasai egon nintzen, eta animuak ematen nizkion ziztada jarri behar zidanari. Ondo irten zen dena, eta nik jarri nionean ere ez zen arazorik egon. Praktiketara denetik egitea tokatu zitzaidan. Urduri egoten nintzen hasieran, baina han egoten den irakasleak babes osoa ematen zidan. Irakasleekin oso harreman ona geneukan.

◆ **Dentistarengana joateak beldurra ematen dionari zer esango zenioke?**

Lasaitasuna transmititzen dion dentista bat topatzeko esango nioke. Konfiantzazko pertsona bat aurkitzea da klabea. Batzuetan dentistari zer egingo dizun gal-

detzea ondo etortzen da, lasaitzeko. Batzuei gustatzen zaie jakitea, baina beste batzuek nahiago dute begiak itxi eta dentista zertan dabilen ez jakitea.

◆ **Aurrerantzean, zein dira zure asmoak?**

Momentuz atsedean pixkat hartu eta lasaitu nahi dut, azken hilabetea oso intentsoa izan da-eta. Mallorcan izan gara Kongresu batean, eta harako aurkezpena prestatu behar izan dut. Ikasketa amaierako lana oso txukuna irten zitzaidan eta irakasle batek komentatu zidan egunen baten kongresuren batean aurkezteko modukoa zela. Mallorcako kongresuaren berri eman zidan irakasleak, eta joatea erabaki genuen. Kongresurako moldatu behar izan dut lan hori. Poster batean laburbildu behar nuen dena, eta gero, epaimahai zientifiko baten aurrean aurkeztu. Espainia guztiko jende pila batek hartu zuen parte, eta nire lana saritu zuten. Megafoniatik esan zutenean *la doctora Ane Arakistain* ez nuen pentsatu ni nintzenik ere. Sekulakoa izan zen. Nire lehenengo kongresua eta saria irabazi! Parrandara joan ginen denok ospatzera.

◆ **Emango dizkiguzu hortzak ondo zaintzeko gomendio batzuk?**

Hortzak ondo garbitu eta urtean behin dentistarenera joatea oso garrantzitsua da. Hortzetako mina sentitu aurretik joan behar da dentistarengana, bestela beranduegi izan daiteke. Askok utzi egiten dute garestia delako, baina hiru urtetik behin joanda garestiagoa da, urtero joanda baino. Prebentzioa da sekretua. Jatordu bakoitzaren ondoren garbitu behar dira hortzak, eta oso garrantzitsua da hortzekin batera entziak ere garbitzea. Askotan hortzak garbitzen ditugu eta entzia ahazten dugu, eta plaka gehiena entzian piltzen da. Hortza amaitu eta entzia hasten den muga horretan zirkuluxoak eginez zepilatu behar da. Hortzetako haria erabiltzea ere gomendagarria da, karies gehienak bi hortzen artean sortzen direlako. Eta hortzetako haria erabiltzen ez dakienak dentistari galdetu behar dio, inongo lotsarik gabe.

*Euskararentzat bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz ere, argituko da
noizbait bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu herriak duen
benetako ondasuna;
Urte Berriak dakarkiola
geureari osasuna.*

*Eguberri zoriontsua
eta urte berri on!*



DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA



Kalebarren plaza, 2 – 20870 ELGOIBAR
943 742 731
udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus



INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES



FABRIKAZIOAREN
ZENTRO AURRERATUA
CENTRO AVANZADO
DE FABRICACIÓN

ILSko langileen partez...

**ZORIONAK
ETA URTE
BERRI ON!**

2019





Lanbroa

Pedro Muguruza, 5
Tel.: 943 743 811 / 943 740 806

Gabon zoriontsuak herritar guztioi!

- EGUNEKO MENUAK ● MENU BEREZIAK ● PLATER KONBINATUAK
- BOKATAK ERAMATEKO ● PINTXOAK

ibai-ondo erretegia

943 256 028



ASKETA
ERAKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA
SERVICIO INTEGRAL DE OBRAS

DENDAK

Pedro Muguruza, 5
20870 Elgoibar
asketa@asketa.net
www.asketa.net

Maxpe, 3 - 5 behea
20820 Deba

BILTEGIA

Igartu industrialdea
Pab. NN 0-8-9
20850 Mendaro

**ESKATU AURREKONTUA
KONPROMISORIK GABE**

943 19 19 52

Zure esku jartzen ditugu
profesional onenak,
konfiantza eta kalitatea eskainiz.

*Gabon zoriontsuak
eta urte berri on!*



BERRITZE LANAK - PROIEKTUAK - INSTALAKUNTZAK - DISEINUA - AHOLKULARITZA

▶ JASONE OSORO IDAZLEA

Txankakua Merkatarri Elkartearen enkarguz, *Bera eta ezinezko jostailua* idatzi du Jasone Osorok. Denda txikietan erosteak dituen alde onak nabarmendu ditu ipuin honetan, baina aldi berean, sare sozialek dituzten alde onak ere aipatzen ditu. 5-8 urte bitarteko umeei zuzendutako liburua da. Osorok testua idatzi du, eta Mikel Cornejok egin ditu ilustrazioak. Era berean, Eskularru Beltzak bildumako azken liburua ere kaleratu berri du Osorok: *Ihes*.

- AINHOA ANDONEGI -



“Internet euren alde erabili behar dute herriko merkatariek”

◆ Nola suertatu zaizu ‘Bera eta ezinezko jostailua’ idazteko aukera?

Txankakua Merkatarri Elkartearen enkargu bat izan da. Mikel Cornejo eta biokin jarri ziren harremanetan, eta esan ziguten herriko merkataritza sustatzeko liburu bat kaleratu nahi zutela. Bera eta bere familia pantailen munduan murgilduta bizi dira, ez daukate apenas harremanik beraien artean eta euren arteko komunikazioa pantailen bidez egiten dute. Ez dute benetako mundua ezagutzen, eta erosketak guztiak Internet bidez egiten dituzte. Beraren urtebetetze egunerako oparia ere Internetez erosiko dute, baina ez da izango Berak nahi duen oparia. Halako batean, Bera etxetik irtengo da, eta deskubrituko du berak nahi duen oparia etxe aurreko dendako erakusleihoan dagoela. Dendariak barrura sartzeko gonbitea egingo dio, eta orduan hasiko da Beraren benetako urtebetetze festa.

◆ Zein mezu zabaldu nahi izan duzu?

Denda txikian erosteak dituen baloreak nabarmendu nahi izan ditut. Denda txikian erosteak gertuko harremanak sustatzen ditu, batetik. Berak ez dauka senideekin kontaktu fisikorik ere, dena pantailen bidez egiten dute etxean. Konfidantza ere ematen du denda txikian erostea, produktua ikusi, ukitu eta probatzeko aukera eskaintzen duen heinean.

◆ Internet, baina, guztion eskura dago. Zer egin dezakete denda txikiak horren aurrean?

Ezin dute Interneten kontra egin, beraz Internet beraien alde erabili behar dute herriko merkatariek. Gaur egun gero eta gehiago egiten dute, eta nik uste dut oso ondo egiten dutela. Denda askok Internetez erosteko aukera eskaintzen dute, eta beste

askok, erosteko aukera eskaintzen ez badute ere, erakusleiko bezala erabiltzen dituzten sare sozialak. Euren produktuak erakusteko erreminta oso onak dira. Bezeroek produktuak ikus ditzakete, eta zerbait gustatuz gero, dendara joan daitezke probatzera. Liburuan sare sozialen alde ona ere azaltzen da, nolabait. Azken batean, Beraren gurasoak sare sozialen bidez jakiten dute kaleko dendan hasi dela Beraren urtebetzeetako festa. Ondo erabiliz gero, sare sozialak oso egokiak dira.

◆ Ipuin honen paraleloan, ‘Ihes’ liburua kaleratu berri duzu.

Bai, Eskularru Beltzak bildumako laugarren liburua da, eta honen bukatuko da orain arteko istorioa. Bi urtean lau liburu idazteko konpromisoa hartu nuen, eta orain etenaldi txiki bat egingo dut. Horrek ez du esan nahi istorio honek segidarik izango ez duenik. Sei pertsonaia dira liburuko protagonistak, eta baliteke egunen batean zerbait gehiago idaztea. Baina azken liburu honetan beraien gatazka gehienak konponduta geratu dira. Boxeoa dauka ardatz bildumak. Metafora baten bidez erakutsi nahi izan dut kolpeak hartu eta erori arren, altxatzen jakin behar dela, edo batzuetan borrokarik ez egitea dela zutik mantentzeko modurik onena. Azken liburu hau da lauretatik helduena. Kuriositate moduan esango dizut Txiki Egunari keinu bat egin diodala azken istorioan.

◆ Etenaldi hau zertarako aprobetxatuko duzu?

Ez diot idazteari utziko, baina beste gauza batzuk ere egingo ditut. Ikastetxeetan hitzaldi eta sorkuntza tailerrak ematen ari naiz, telebistan ere kolaboratzen dut eta Berdintasunari buruzko kurso batean gai bat eskainiko du, lan mundua eta berdintasunari buruzkoa. Euskal literaturatik soilik bizitzea ez da erraza eta gauza gehiagotan dihardut lanean.

▶ MIKEL CORNEJO

ILUSTRATZAILEA

◆ Nola hartu zenuen Txankakuaren enkargua?

Ez nuen espero, eta egia esateko, pozik hartu nuen. Azaldu ziguten zein zen ideia, eta ilusioa egin zidan. Aspaldi horrelako lanik egin gabe nengoen, eta gogoz hartu nuen. Jasonerekin elkarlanean jarduteak ere ilusioa egin zidan, aspaldi geundelako elkarrekin lanik egin gabe.

◆ Diseinu lanetatik aparte zabilta, beraz, azkenaldian.

Diseinu lanak ez ditut inoiz utzi, eta ez ditut inoiz utziko. Nire pasioa da diseinua. Tabernan egiten dut lan, baina tarte bat daukadan bakoitzean ordenagailuan eseritzen naiz. Orduak eta orduak eman ditzaket pantaila aurrean, diseinu berriak sortzen. Kartelak edota katalogoak egiten ditut noizean behin, baina egia da Txankakuaren liburutxo hau berezia izan dela. Umeentzako lana sortzeak aparteko ilusioa egin dit, eta pizgarri moduko bat izan da lan hau niretzat. Burua askatu eta irudimena lantzeko aukera eman dit.

◆ Zertan oinarritu zara liburuko irudiak egiterakoan?

Jasonek eta biok protagonista asexuala edo generorik gabekoa nahi genuen. Umea izatea nahi genuen soilik, ez neska edo mutila izatea. Eta uste dut lortu dugula. Nire amak, esaterako, mutikoa ikusi du, eta Jasoneri besteren batek esan dio neska itxura hartu diola protagonistari. Ez genuen jausi nahi sexismo kontuetan.

◆ Irudikatu duzuen mundua gaur egungo errealitatearekin bat datorrela uste duzu?

Etorkizunera begira jarri gara. Apur bat dramatizatu egin dugu istorioa, baina familia asko ikusten dira kalean elkarren artean pantaila bidez komunikatzen. Liburuko familia ilunpean bizi da, pantailen argia soilik ikusten da etxean. Ordu asko ematen dituzte pantailen aurrean, eta gaur egun modu horretan bizi den jende asko dago. Ni neu ere pantaila aurrean egoten naiz denbora asko, baina egon naiteke baita ere egun osoa telefonoari kasurik egin gabe. Sormenerako erabiltzen dut askotan ordenagailua eta alde horretatik, lasai nago. Uste dut pantailen erabilera ona eginez gero, teknologia eta sare sozialak positiboak direla. Merkataritza txikia ere eraldatu egingo da, eta teknologia txikiak bere mesederako erabiltzen hasiko da. Azken batean Internetez erostea eroso da. Egia da gertatu daitekeela zerbait erosi eta ez izatea espero duzuna, liburuan gertatzen den bezala. Denda txikiak beti emango du gertuko tratua, konfiantzazkoa eta produktua ikusteko edo probatzeko aukera.

◆ Zein teknika erabili duzu?

Akuarela erabili dut. Ordenagailuz eginda dago, baina akuarela estiloan. Berezia izan da niretzat teknika hori erabiltzea eta oso gustura geratu naiz emaitzarekin.

Agortu dira Elgoibarko Izarrararen bertso-jaialdirako sarrerak



Agortu dira Elgoibarren ostegunerako iragarritako bertso-jaialdirako sarrerak. Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak antolatu du jaialdia, Udalarekin lankidetzan eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, eta Uxue Alberdi bertsolari eta idazle elgoibartarrak gidatuko du saioa. Bost bertsolari arituko dira kantuan Alberdiren agindutara: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Miren Artetxe, Nerea Ibarzabal eta Unai Iturriaga. Herriko Antzokian izango da saioa, 22:00etan hasita.

Presoen senideen bizipenak jaso ditu Jokin Urain mendaroarrak liburu batean

Amaren etxea. Euskal preso politikoaren senideen historia bat izenburuko liburua argitaratu du Jokin Urain preso ohi mendaroarrak, Astero argitaletxearen eskutik. Liburuan, sakabanaketa eta urrutize politikek eragiten duten sufrimenduz ohartarazi du Urainek, presoen senideen lekukotzetatik abiatuta. Ehun bat senide elkarriketatu ditu, adin eta genero ezberdinetakoak, eta haien bizipenak jaso ditu. Idazleak berak aurkezpen egunean esandakoaren arabera, senideen "epika" bat da liburua. "Sari idatzi izan da presoen egoeraz eta bizipenez, baina senideei protagonismoa eman zaien lehen aldian izan da hau", azaldu zuen aurkezpenean.

Olentzero eta Mari Domingi astelehenean etorriko dira opariak banatzera



Olentzero eta Mari Domingi astelehenean etorriko dira Elgoibarrera eta Mendarora opariak banatzera. Elgoibarko Izarrak ekarriko ditu Elgoibarrera. 11:00etan hasiko da kalejira Kalegoen plazan, eta herri osoa zeharkatu ostean, elizako arkupeetara joko dute umeen gutunak jasotzera. Elgoibarko lanak bukatuta, Mendarorako bidea hartuko dute. Mendarora 17:00etan iritsiko dira, Garagartzara, eta Moxuaneko paretik abiatuko dute kalejira (eguraldi txarra eginez gero, 17:30ean). 18:30ean udaletxera igoko dira balkoitik herritar guztiak agurtzera.

Ekialdeko errege magoak urtarrilaren 5ean iritsiko dira Elgoibar eta Mendarora, zakuak bete opari hartuta



Ekialdeko errege magoen desfilea urtarrilaren 5ean izango da, ohi legez. Elgoibarren, parrokiako katekesikoek antolatzen dute ekitaldia. 17:00etatik aurrera jaiotza biziduna jarriko dute parrokia atarian, eta 18:00ak alderako iritsiko dira erregeak Santa Klara auzotik. Herri osoa zeharkatuko dute, baina bidean, Maailan, geldialdia egingo dute San Lazaro egoitzako egoiliarrei opariak banatzeko. Handik Kalegoen plazarainoko bidea egingo dute bueltan. Mendaron, Arno guraso elkarteak antolatzen du desfilea. Lizarpetik behera iritsiko dira erregeak herrira 18:00ak aldera (Billalen zain egoteko deia egin dute) eta herrian barrena ibili ondoren, ikastolako frontoian haurren gutunak jasoko dituzte.

Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia Elgoibarren, urtarrilaren 2an

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Musua* ikuskizuna eskainiko dute urtarrilaren 2an, Elgoibarren. Bi saio emango dituzte (16:00etan eta 18:30ean) eta saio horietarako sarre-rak salgai daude. Sarrerak www.kutxa-bank.eus webgunean daude salgai. Helduek 8 euro ordaindu beharko dituzte, eta umeek, aldiz, 6 euro. Gazte Txartela dutenek eta Ludotekako bazkideek prezio berezia izango dute: 4 euro hurrak / 6 euro helduak. Prezio murriztua duten pertsonak baldintzak betetzen dituztela ziurtatu beharko dute. Pertsona bakoitzak zortzi sarrera erosi ahal izango ditu gehienez.

Mendaroko barrunbeen inguruko liburua argitaratu du Leizarpek

Bajo el suelo de Mendaro, por sus cuevas y simas liburua argitaratu du Morkaikoko Leizarpe Espeleologia Taldeak. Liburua Interneten dago, PDF formatuan deskargatzeko moduan (<https://drive.google.com/file/d/16ZeQNkOC2djt-DYhi2cpg3B84VRqsfip/view?usp=sharing>). 400 orrialdeko liburua da, argazkiz, ilustrazioz eta topografiaz betetakoa.

Aurkezpen bideoa, hemen: <https://youtu.be/aKnjTD7UknY>.




Elgoibarko Izarrak euskararen aldeko tonbola eta talo-postua jarriko ditu abenduaren 24an Kalegoen plazan

Bosgarren urtez jarraian, tonbola jarriko du Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak astelehenean, Kalegoen plazan. 11:00etan zabalduko dute tonbola, Olentzero eta Mari Domingiren kalejira kalean behera abiatu ostean, eta 1.500 erregalu baino gehiago zozketa-tutuko dituzte. Elgoibarko eta inguruetako establezimendu, enpresa eta norbanakoek emandako opariak dira zozketa-tutuko direnak, eta lerro hauen bidez, Elgoibarko Izarrak eskerrak eman nahi dizkie opariak eman dituzten guztiei eta baita egun horretan tonbolara eta txosnara gerturatzeko asmoa duten guztiei ere. Tonbolan batutako dirua Elgoibar euskaldunago egiten jarraitzeko erabiliko du Elgoibarko Izarrak. Tonbolaz gain txosna ere jarriko dute plazan, talo-postua eta guztikoa.



Aurrez grabatutako 'El cascanueces' opera emango dute Elgoibarren, hilaren 28an

El cascanueces opera ikusteko aukera izango da Elgoibarren gaur zortzi, hilaren 28an, Herriko Antzokian (17:30). Ez da zuzeneko opera, aurrez grabatutakoa baizik eta hiru orduko iraupena du. Neska gazte batek opari magiko bat jasotzen du eta abentura batean murgilduko da Chaikovskiren partitura batean oinarritutako balet klasiko honetan. Sarrerak 10 euroan jarri dituzte salgai (Gazte txartela



Zuhaitz Gurrutxagak emango ditu urte amaierako kanpaikadak ETB1en, zuzenean

Mikel Pagadi eta Sara Gandararekin batera emango ditu Zuhaitz Gurrutxaga elgoibartarrak urte amaierako kanpaikadak. Arabar Errioxako Guardia herritik emitituko dute, ETB1en eta ETB2n, aldi berean.

Aimar Enjuto eta Alain Bastidaren lanak saritu dituzte Mendaroko ipuin lehiaketan

Urtero legez, ipuin lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak. Hiru maila izendatu zituzten, baina B eta C mailetan ez dute ipuinik auzetu eta eman gabe laga dituzte maila horiei zegozkien sariak. A mailan, berriz, 64 ipuin aurkeztu dituzte guztira eta bi onenak aukeratu dituzte: Aimar Enjutoren *Olentzeroren istorioa* (Lehenengo saria) eta Alain Bastidaren *Olentzero eta ekin* (Bigarren saria). Diska eta liburu bana jasoko dute oparizat.





Cruz Arriola Albizu

2018ko abenduaren 16an hil zen, 90 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.***

Etxekoak



Francisco Fernandez Olmo

2018ko abenduaren 16an hil zen, 64 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Zure ondoan bizitza pozgarria izan da. Ez zaitugu ahaztuko



Jose Antonio Larrañaga Arriola

2018ko abenduaren 18an hil zen, 66 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Yolanda Gabilondo Mendizabal

2017ko abenduaren 26an hil zen, 84 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, abenduaren 22an,
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



Paul Velten xakelari baionarra gailendu da Nazioarteko Xake Txapelketan eta ITS Security Irekian

Xakearen astea izan da azken hau Elgoibarren, lau xake txapelketa jokatu baitituzte, eta Paul Velten izan da protagonista nagusia, berak irabazi baititu bi txapelketa garrantzitsuenak. Joan den abenduaren 13an amaitu zen 2200 elo azpiko xakelarietzako Danobat Irekia. Isidro Ruiz arrasatearra gailendu zen zazpi jardunaldi eta ia hiru hilabeteko lehiaren ostean. Johnny Sedusea bilbotarrak egin zuen bigarren eta Jon Arana eibartarra sailkatu zen hirugarren. Juan Manuel Navarro izan zen Zubi Ondo taldeko ordezkari onena, eta Markel Kerexeta elgoibartarra gailendu zen 18 urtez azpikoetan. Zapatuan, berriz, ITS Security Irekiaren estreinako ekitaldia jokatu zuten 50 xakelarik, Kultur Etxean. Xakeko maisu handiek xakelari afizionatuen aurka lehiatzeko aukera izan zuten, eta Paul Veltenek irabazi zuen txapelketa. Hanoin, Vietnamen, jaioa da Velten, baina bederatzi urterekin Baionara etorri zen bizitzera, eta harrezgero Euskal Herriko xake taldea ordezkatu izan du eta Donostiako Gros Xake Taldeko kidea da gainera. Orain 25 urte ditu, eta Parisetik gertu bizi da Xakeko Maisu Handi titulua duen xakelaria (2485 elo puntu). Egungo Euskal Herriko xake txapelkunak, Mikel Huerga nafarrak, eskuratu zuen bigarren postua; eta, Nicola Napoli italiarra eta Aleksa Strikovic serbiarra sailkatu ziren, hurrenez hurren, hirugarren eta laugarren postuetan.

Paul Velten nagusi Nazioarteko Xake Txapelketan ere

Jon den martitzenean amaitu zen Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketa prestigiotsuaren 28. ekitaldia, eta hor ere Paul Velten izan zen onena, 6,5 punturekin. Aleksa Strikovic serbiarra sailkatu zen bigarren, 6 punturekin, eta Javier Moreno espainiarrak lortu zuen hirugarren puntua, 5,5 punturekin. Elgoibarko Torneoa irabazitakoak diren Michael Oratovsky (2016an irabazi zuen) eta Mikel Huerga (2009ko irabazlea) sailkatu ziren laugarren eta bosgarren postuetan. Torneoko emakumezko bakarrak, Karina Ambartsumova errusiarrak, seigarren egin zuen. Azkenik Eskolarteko xake txapelketa ere jokatuko zuten, abenduak 16an, Kultur Etxeko sotoan. 10 urtez azpikoetan, Hodei Agirre gailendu zen, Beñat Cearsolo 12 urtez azpikoetan, eta Haritz Iriondok irabazi zuen 14 urtez azpikoen txapelketa.



Hugo Sierra arkularia Gipuzkoako txapelkun, etxean jokatu zuten txapelketan



Gipuzkoako Aretoko XXVIII. Arku Tiraketa Txapelketa jokatu zuten, joan den domekan, Olaizaga kiroldegiko kantuan. Arku instintiboen modalitatean etxean geratu zen txapela, Hugo Sierrak eskuratu zuelako titulua. Zarta arkulari taldeko kide eta lagun duen Javier Varona izan zuen aurkari finalean Sierrak. Parte hartzaileek 30 geziko bi serie jaurti zituzten kalifikazioan, 18 metrora zeuden ituetara. Puntuazio onena lortu zutenek jokatu zituzten gero kanporaketak.

Gabonetako harri-jasotze txapelketako hiru finalistetako bat da 'Goikoetxe'



Imanol Albizu Goikoetxe harri jasotzaileak Aizarnazabalgo Xabier Peñagarikano eta Ondarroako Inhar Urruzuno izango ditu aurkari Gabonetako harri-jasotze txapelketako finalean. Abenduaren 31n jokatuko dute finala Asteasun. Ehun kiloko hiru harrirekin neurtuko dituzte indarrak eta teknika: zilindro zaharra, kubikoa eta bola. Finalerdian 85 altxaldi eginda sartu zen finalean Peñagarikano, 84 altxaldi eginda Urruzuno eta Goikoetxek 81 egin zituen Aizarnazabalen jokatu-tako saioan.



Mugertza krosak badauka kartela

Juan Mugertza Nazioarteko krosaren kartela aurkeztu du Mintxeta Atletismo Taldeak, 2019ko krosa jokatzeko hilabete baino gutxiago falta denean -urtarrilaren 13an jokatuko da-. Atletismo Federazioen Nazioarteko Elkarteak (IAAF) antolatutako argazki lehiaketan atletismoko urteko argazki onenaren saria irabazi berri duen argazkia eraman dute kartelera, Felix Sanchez Arrazolak Selemón Barega etiopiarrari ateratakoa.

Iker Izagirrek ezin izan zuen finalerdietarako sailkatu

Gipuzkoako errendimendu txapelketan zortzi pilotaririk onenen artean sailkatzea lortu du Lagunak Pilota Eskolako Iker Izagirrek (Elgoibar, 2007), baina final-laurdeneren kanporatu zuten. Unax Madina izan zuen aurkari aurreko barixakuan Ikastolako frontoian jokatu zuten kanporaketan, eta Beasaingo Murumendi Pilota Eskolako ordezkariak lortu zuen finalerdietarako sailkatzea. Gutxiatik, baina bi jokoak irabazi zituzten Madinak Izagirreri: 7-8 eta 6-8.



Haur krosa egingo dute zapatuan Mendaron, eta San Silbestrea abenduaren 31n

Mendaroko Txirrindulari Elkarteak haurren artean kirolerako zaletasuna sustatzeko asmoz antolatzen du Gabonetako Haur Krosa, eta zazpigarren edizioa antolatu dute zapaturako (abenduak 22). 17:00etan hasiko da proba Mendarozabaletik. 2007. urtetik 2013ra bitartean jaiotako neska-mutilek parte hartu ahal izango dute, eta lasterketak adinka egingo dituzte. Izenematea doan izango da eta lasterketa hasi baino ordu-erdi lehenago egin behar da irteeran. Parte hartzaile guztiek domina eta gozoki poltsa bana jasoko dituzte bukaeran.

San Silbestrea, Mendaron

Mendaroko Txirrindulari taldeak antolatuta, abenduaren 31n 17:00etan hasiko da Mendaroko San Silbestrea. Bost kilometroko ibilbidea izango du probak eta Goñati frontoitik irtingo dira. Egunean bertan eman beharko da izena, bi eu-



roan. Elgoibarren ez da San Silbestre lasterketarik egingo. Mintxeta Atletismo Taldeak jakinarazi duenez, aurten ere ez antolatzea erabaki dute, iaz moduan.

Iker Arrillaga atezain elgoibartarra Haundira itzuli da



Iker Arrillaga (Elgoibar, 1986) atezaina fitxatu du C.D. Elgoibarrek Haundin jokatzen. Arrillaga esperientzia handiko atezaina dela nabarmendu dute klubeko arduradunek: "Elgoibartik irten ostean partida asko jokatu baititu Bigarren B Mailan eta Hirugarren Mailan, Barakaldon eta Lemonan, besteak beste". Haundi taldeari laguntzeko ilusio eta gogo handiz itzuli dela gaineratu dute. Haundik behereko postuetatik irteteko partida garrantzitsua jokatuko du domekan etxetik kanpo, Hondarribiaren aurka. Saillapenean azken aurreko hirugarren postuan daude elgoibartarrak, 13 punturekin; eta, azkenak dira hondarribarrak, 8 punturekin.

Euskadiko eskubaloi selekzioek Elgoibarren prestatuko dute Espainiako txapelketa

Selekzio Autonomikoen arteko Espainiako txapelketa (CESA 2019) prestatzeko lagunarteko partiduak jokatuko ditu Euskadiko Eskubaloi selekzioak Elgoibarren, abenduaren 29an. Infantil, kadete eta jubenil mailetako nesken eta mutilen selekzioek jokatuko dute Elgoibarren. Jubenilek Sanloko senior mailako jokalariekin osatutako taldeen aurka jokatuko dute. IMH Kiroldegian jokatuko dituzten bi partidak 10:00etan eta 11:45ean. Olaizagan lau partida jokatuko dituzte.

Idi-demak abenduaren 29an

Gabon Zahar Feria Egunerako idi-demak antolatu ditu Sigma Probaleku Herri Kirol Elkarteak. Idi gazteen arteko dema izango da. Hiru idi pare lehiatuko dira Sigmako probalekuan, 22:00etatik aurrera: Matxain (Oreeta), Telleria (Lasarte) eta Lopategi (Viela). 1.600 kiloko harriari tira egin beharko diote orduerdiko saioan. Irabazleak 900 euro eta manta jasoko ditu sarritzat. Bigarren sailkatuak 800 euro jasoko ditu, eta 700 euro hirugarrenak. Sarrerak 15 euroan jarriko dituzte.

Izotz Hockey Txapelketa

Elgoibarko Eskola Kirola Elkarteak antolatuta, Izotz Hockey Txapelketa jokatuko dute abenduaren 27an eta 28an, 10:30etik aurrera, Lekueder parkean ipiniko duten patinatze pistan. Patinatze pista abenduaren 21etik urtarilaren 6ra bitartean egongo da zabalik herritarrentzat.



LANA.....
Eskaerak

Umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 631 019 445

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan aritzeko prest. ☎ 651 148 490

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Titulua daukat. Orduka. ☎ 631 506 763

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia handia daukat. ☎ 631 657 692

Adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 698 728 930

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan aritzeko prest. ☎ 681 065 683

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo lanaldi osora. ☎ 634 283 157

Adinekoak edo umeak zaindu eta etxeak garbitzeko prest nago. Orduka. ☎ 695 803 909

Edozein lan egiteko prest nago. ☎ 631 662 531

Adinekoak eta etxeak garbitzeko prest nago. Orduka. Gizarte osasunerako titulua daukat. ☎ 659 578 601

Adinekoak edo umeak zaindu eta etxeak garbitzeko prest nago. Orduka, asteburuetan edo etxeko langile moduan. ☎ 612 574 783

Garbiketa lanak egiteko edo umeak zaintzeko prest nago. ☎ 643 323 088

Adinekoak zaintzeko prest nago. 11:00etatik 16:00etara. ☎ 693 673 904

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gauzez edo etxeko langile moduan ere bai. ☎ 690 134 485

Adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 665 528 409

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo orduka. ☎ 643 464 072

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 616 457 254

Adinekoak zainduko nituzke. Ospitalean gauak pasatzeko prest. ☎ 658 464 396

Adinekoak zainduko nituzke, ospitalean ere bai. ☎ 631 822 545

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Berehala hasteko moduan. ☎ 612 289 330

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Esperientzia handia. ☎ 631 790 555

Adinekoak zainduko nituzke arratsaldetan. ☎ 632 975 035

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Etxeko langile edo orduka. Berehala hasteko prest. ☎ 666 879 746

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Etxeko langile edo orduka. Berehala hasteko prest. ☎ 632 699 477

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest. Orduka. Asteburuetan ere bai. ☎ 631 558 243

Adinekoak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egiten ditut, etxeetan, tabernetan... ☎ 602 490 595

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Etxeko langile edo orduka. ☎ 612 574 783

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Ospitalean ere bai. Etxeko langile edo orduka. Berehala hasteko moduan. ☎ 631 063 561

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, Etxeko langile edo orduka. Asteburuetan ere bai. ☎ 627 230 784

Umeak zaintzeko prest nago. Goizez. ☎ 652 718 719

Adinekoak zein umeak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 615 526 482

Adinekoak zein umeak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 605 598 999

Adinekoak zein umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo tabernari laguntzaile moduan arituko nintzateke. ☎ 675 965 130

Adinekoak zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ 631 145 986

Adinekoak zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Astelehentik ostiralera, egunez. ☎ 632 642 500

Eskaintzak

Sukaldaria eta asteburuetarako zerbitzaria behar dira. ☎ 656 723 570

Mendaroko pilota eskola entrenatzaile bila dabil. ☎ 688 649 596 (Naiara)

ETXEBIZITZAK.....
Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren edo Eibarren. ☎ 631 860 704

Mutil gaztea naiz. Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 666 386 563

BESTELAKOAK.....
Bi koloretako pulsera galdu nuen azaroaren 30ean, erdigunean. Balio sentimental handikoa da. ☎ 628 564 011

Butanozko bi berogailu eta izozgailu bat behar ditut. ☎ 602 490 595

administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas *Asociación Vasca Administradores Empresas*



ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Barruko patioa duen eraikin-bloke batean bizi naiz. Patio horretara eraikineko zazpi blokeetatik sartu daiteke. Patio horretan, baina, lorontziak jartzten hasi zireneko bizilagun batzuk duela denbora bat eta usadio hori zabaldu egin da. Lorontzi horiek direla eta ez direla, haurrek ezin dira patioan jolastu, lorontziak apurtzeko arriskua dagoelako. Jakin nahiko nuke patioa lorontziz bete daitekeen, komunitatearen oniritzirik gabe.

Normala denez, legeak ez ditu elementu komuneren erabileraren inguruko kasuistika guztiak jasotzen. Baina zehaztuta dauden arauetatik epaileek atera dituzte elementu komun horien erabileraren inguruan erabakitzeko irizpideak. Beti ezin da, baina, nahiko genukeen bezain argi interpretatu eman dakiekeen erabilera eta eman ezin dakiekeena. Horregatik kasu bakoitzaren inguruabarrak hartu beharko dira kontuan.

Kalterik eragiten ez duten erabilerak baimenduta daude. Eta jakina, patio batean lorontzi batzuk jartzeak ez du kalterik eragiten. Baina horrenbeste lorontzi jartzeak patioaren ohiko erabilerari kalte egiten badio mugaren bat jarri beharko da ezinbestean.

AHOLKUA: Hala ere, gomendagarria litzateke patio zehatz horren erabileraren inguruan zerbait zehaztuta dagoen aztertzea. Ezer ez balego jasota, komunitateak adostu beharko luke eta idatziz jaso, deskribatu duzun moduko arazoak sor ez daitezten.



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Nora!** Zure lehen hamar urtekoa! Poz pozik ospatu lagun eta familia-koekin. Besarkada bat eta mila muxu etxekoan partez.




Zorionak, **Oinatx!** Azkenean iritsi da zure urtebetetze eguna! 9 tirakada eta ondo-ondo pasatu familiakoan eta lagunaren artean.



Zorionak, **Klara!** Ondo pasa Santo Tomas egunean! Muxu handi bat familiakoan eta bereziki, nebaren eta lehengusuen partez.



Zorionak, **June,** a b e n d u a r e n 15ean 10 urte bete zenituelako. Patxo handi bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Nahia eta Jon!** Jada 8 urte! Jarraitu beti bezala gure etxeak pozez betetzen zuen alaitasunarekin. Muxu potolo bana, denon partez.



Zorionak **Beñat eta Nere!** Ondo ospatu zuen 6. eta 4. urtebetetzeak! Muxu pila bat Elgoibartik eta Debatik.



Ongietorri mundura, **Enzzo!** Gabon zoriontsuak ekarri guztiontzat!



Zorionak, **Eneko,** urtarrilaren 5ean 10 urte egingo dituzulako. Aitxita, amama eta lkerren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

GOBIKE

www.gobikeelgoibar.com

943 740 025

Abenduaren 28an **lokal berriak** aurkituko gaituzu.
Bixita gaitzazu Jausoro Plaza, 1 behean.

%15
deskontua

Tiket hiru ekarritz gero, stock-ean dauden produktuetan
%15eko deskontua lortuko duzu.
Personako bale bakarria, ez metagarria. Urtarrilaren 3era arte balio du.

1874tik Kalitatezko soluzioak eskaintzen

Zorionak eta urte berri on!!!



SARIKI
METROLOGIA



UNCETA
Herramientas de calidad



LABMETRO
Laboratorio de Metrología



www.grupounceta.es

21 BARIKAKUA

19:00 Urte bukaerako meditazio mintegia. Isiltasunaren Eskolak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

19:00 Ander Errastik eta familiak *Heren-sugeen itzulera* liburua aurkeztuko dute. Kultur Etxean.

20:00 Musika Eskolaren Gabonetako kontzertua. San Bartolome parrokian.

20:30 Antzerkia: *Ghero, azken euskalduna*. Tartean Teatroak taularatuko du, Herriko Antzokian.

21:30 Bideo foruma: *Malas madres*. Lore-di Salegirekin. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

22 ZAPATUA

17:00 Haur Krosa, Mendaron. Mendaroko Txirriindulari Elkarteak antolatuta, Mendarozabalen. Izenematea, ordu erdi aurretik, doan.

23 DOMEKA

12:30 Udal Musika Bandaren Gabonetako kontzertua. Herriko Antzokian. Zuzendaria: Juanma Saez Etxabe.

1. *Klezmer karnival* (Phillip Sparke)
2. *A tribute to Edith Piaf* (Arr. Roland Kerren).

3. *The lion king* (Arr. John Higgins).
4. *Músicos sin fronteras* (Ferren Ferran)
5. *West side story* (Leonard Bernstein / N. Iwai).
6. *A most wonderful Christmas* (Robert Sheldon).

24 ASTELEHENA

11:00 Olentzero eta Mari Domingiren kalejira, Kalegoen plazan hasita. Antolatzaila: Atxutxiamaika.

11:00 Elgoibarko Izarrak tonbola eta txosna jarriko ditu Kalegoen plazan.

12:00 Udal Musika Bandaren ekitaldia, San Lazaro egoitzan.

Ondoren, Udal Musika Bandaren kalejira, Maalako parkean hasita.

13:00 Udal Musika Bandak Gabon kantak joko ditu, Kalegoen plazan.

17:00 Olentzero eta Mari Domingiren Kalejira, Mendaron. Garagartzatik abiatuko da, Moxuanetik. Eguraldi txarra egingo balu, 17:30ean abiatuko litza-teke.

17:00 Presoen eskubideen aldeko Olentzeroren kalejira. Kalegoen plazatik. Segida, mokaduxoa lanbroa tabernan eta gero, argazki erraldoia Maalako parkean.

18:30 Olentzero eta Mari Domingiren agurra Mendaroko udaletxean. Gabonetako ipuin lehiaketako sariak banatuko dituzte.

26 EGUAZTENA

10:00 Sukaldaritza, herriko produktuekin. Udalak antolatuta, parrokiako arkupe-etan.

27 EGUENA

10:30 Eskola kiroleko izotz hockey txapelketa, Lekuederren.

22:00 Gabonetako bertso jaialdia. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Herriko Antzokian.

28 BARIKAKUA

10:30 Eskola kiroleko izotz hockey txapelketa, Lekuederren.

11:00-14:00 / 16:30-19:30 Haur parkea, Mendaroko Ikastolako jolastokian.

17:30 Aurrez grabatutako opera: *El Cascanueces*. Herriko Antzokian.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-20:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

21 BARIKAKUA	22 ZAPATUA	23 DOMEKA	24 ASTELEHENA	25 MARTITZENA	26 EGUAZTENA	27 EGUENA	28 BARIKAKUA	29 ZAPATUA	30 DOMEKA	31 ASTELEHENA
Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez Garitaonandia	Egunez Ibañez	Egunez Ibañez	Egunez *Ibañez	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea	Egunez Etxeberria
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean *Ibañez	Iluntzean *Ibañez	Iluntzean *Ibañez	Iluntzean *Ibañez	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Yudego	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Etxeberria
1 MARTITZENA	2 EGUAZTENA	3 EGUENA	4 BARIKAKUA	5 ZAPATUA	6 DOMEKA	7 ASTELEHENA	8 MARTITZENA	9 EGUAZTENA	10 EGUENA	11 BARIKAKUA
Egunez Etxeberria	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti Barrenetxea	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez
Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean *Oruesagasti	Iluntzean *Oruesagasti	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)
943 254 410

29 ZAPATUA

23:30 Erromeria. Fan&Go taldearekin, Sutegixan, Elgoibarko Gaztetxean.

31 ASTELEHENA

17:00 San Silbestre lasterketa, Mendarón. Mendaroko Txirriindulari elkarteak antolatuta.

2 EGUAZTENA

16:30 eta 18:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen ikuskizuna, Herriko Antzokian.

4 BARIXAKUA

11:00-14:00 / 16:30-19:30 Haur parkea, Mendaroko Ikastolako jolasokian.

5 ZAPATUA

17:30 Jaiotza biziduna, Kalegoen plazan, Elgoibarko Katekesiak antolatuta.

18:00 Errege Magoen desfilea, Elgoibarko Katekesiak antolatuta. Santa Klara azotik iritsiko dira Elgoibarrera.

18:00 Errege Magoen desfilea, Mendarón. Alkortatik behera etorriko dira, zaldiz.

6 DOMEKA

11:30 Kristau ikasbidekoen meza berezia. San Bartolome parrokian.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua, Herriko Antzokian.

9 EGUAZTENA

18:00 Guraso eta hezitzaileentzako tailerra: Nola aukeratu ipuin egokiak. Itziar Zubizarretak eskainiko du, Udal Liburutegian.

10 EGUENA

19:00 Meditazioa eta jardunaldia: 'Praktika aterpe bezala bidean zehar'. Ixiltasun Eskolak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

GABON ZAHAR FERIA

Abenduak 29, zapatua

8:30etik 14:30era

- Kalegoen plazan: barazki eta fruta erakusketa, lehiaketa eta salmenta.

- Elizpean: baserriko produktuen erakusketa eta salmenta. Gazta eta ezti.

- Aita Agirre plazan: baserriko produktuen, lanabesen eta landareen erakusketa eta salmenta.

- Bolatokiko parkean, Lekuederren eta Kalebarren plazan hainbat abereren erakusketa.

- Pedro Migel Urruzuno kalean burdingaiak eta nekazaritza makineria.

9:00etatik 21:00etara

Jaiotza mekanikoa, parrokiako kaperan.

10:00etatik aurrera

Baltzola Anaiak trikitalarien kalejira.

10:00etatik 14:30era

Artalde Elgoibarko artisauen erakusketa eta salmenta, Maalako parkean, ArTalde antolatuta.

11:30etatik 14:30era

Falkoneria erakustaldia Aita Agirre plazan.

11:00etan

Elgoibar Ikastolak Eusko Label marka duten harakinen laguntzarekin (Armuet eta Ziarda), labeldun sahieski pintxoak eskainiko ditu, Kalebarren plazan.

11:30ean

Elgoibarko Kale Kantarien saioa, Kalebarren plazan hasita.

12:00etan

Urteko Gazta Onenaren XII. Txapelketa, Udaltzeko pleno aretoan, Kalamua elkarteak antolatuta. Lehiaketak irauten duen bitartean pleno aretoan Mañukorta, Ziarda eta Meabasterretxea bertsolariak.

13:30ean

Udaltzeko pleno aretoan fruta, barazki eta gazta lehiaketaren sari banaketa.

18:00etan

Kalegoen plazan, Plazara Dantzara erromeria, Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatuta.

21:00etan

Ildi gazteen probak, Sigman. Sigma Probaleku Herri Kirol Elkarteak antolatuta.

Azaroan hildakoak

- **Ignacio Betelu Azurmendi** 90 urte, azaroak 1
- **Isabel Azpeleta Iturricastillo** 49 urte, azaroak 2
- **Antonio Perez Sanchez** 89 urte, azaroak 5
- **Ventura Arrieta Bergaretxe** 93 urte, azaroak 11
- **Manolo Alvarez Fernandez** 78 urte, azaroak 12
- **Maria Dolores Argoitia Aranzamendi** 83 urte, azaroak 15
- **Jose Marcos Arizmendiarieta Larrañaga** 70 urte, azaroak 17
- **Joseba Iriondo Garate** 84 urte, azaroak 18

Zinea (Herriko Antzokian)

'Colette'
22 zapatua: 19:00 /
22:15 VOS
23 domeka: 19:00
25 martitzena: 19:00

'Condorito'
23 domeka: 16:30

'El regreso
de Ben'
28 barixakua: 21:30
29 zapatua: 19:00
/22:15 (VOS)
30 domeka: 19:00
1 asteartea: 19:00

'Ralph rompe
Internet'
30 domeka: 16:30

'Viudas'
4 barixakua: 21:30
5 zapatua: 19:00 /
22:15 VOS
6 domeka: 19:00
7 martitzena: 19:00



1972

Aste honetako erretratu zaharra 1972. urtekoa da. Lagun talde honek Lesakara egin zuen txangoa egun horretan, eta han ateratako argazkia da. Gogora ditzagun zeintzuk diren erretratuko neska horiek: **Goian:** Ane Goikoetxea, Juani Sanz eta Mari Jose Arakistain. **Behean:** Mari Fran Unzueta, Mari Tere Arakistain eta Maite Unzueta.



BARREN Elgoibartik kanpo jasotzen dutenentzako oharra

Hego Euskal Herria eta Espainia: **30€** (Elgoibarko Izarrako bazkideek **24€**)

Ipar Euskal Herria eta Europa: **43€** (Elgoibarko Izarrako bazkideek: **33€**)

Europatik kanpo: **55€** (Elgoibarko Izarrako bazkideek: **44€**)

Harremanetarako: **943 744 112** edo barren@elgoibarkoizarra.eus




Jose Mari Aizpurua Epelde

2018ko abenduaren 18an hil zen, 80 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Bihotzetik maitasuna gainez,
ahotik hitz gozo eta atseginez,
hala izan zaitugu,
beti irribarrez.***

Etxekoak



I. URTEURRENA

Arantzazu Iriondo Arizmendi

2017ko abenduaren 18an hil zen, 91 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan,
abenduaren 23an, 12:30ean, Azpilgoetako elizan.
Joango zaretenoi aldeztu aurretik eskerrak.

***Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzean.***



II. URTEURRENA

Francisco Urain Lazcano

2016ko abenduaren 29an hil zen, 92 urte zituela.
Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, domekan,
abenduaren 30ean, 12:30ean, Garagartzako elizan.
Joango zaretenoi aldeztu aurretik eskerrak.

***Zure ondoan bizitza pozgarria izan zen.
Ez zaitugu ahaztuko.***



HURRENGO **BOE** SUSTAPENA ELGOIBARREN, OLASOATEN



EMAN IZENA **ETXEBIDEN**
ETA EZ GALDU AUKERA HAU



943 31 68 68

www.sukia.com

 **sukia**

Zure etxean zaude **Estás en tu casa**